


Berrigara



San Martinak

Feria jaien atarian

MECA BERGARA

Amillaga 5. Tf. 943 76 40 68

clio




ERRAZAGO ORAINDIK: ORAIN, LEHEN **6** KUOTAK DOAN.



Oraingoan bai!

IRAILA EUSKARAZ DATOR!

Udal Euskaltegiak



HABEren dirulaguntzaz.

ESKAINTZA

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE
maila guztiak, EGA.

ESKAINTZA BEREZIA

GURASOei eta MERKATARiei
egokitutako taldeak.

MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 1etik 18ra.
16 urtetik gorakoentzat.

ERRITMOAK

Egunero 2 ordu (iraila-ekaina)
Egunero 3 ordu (iraila-ekaina).
Egunero 5 ordu (iraila-otsaila) eta
(otsaila-ekaina).

Astean bi egunean 2 ordu eta erdi (EGA).
Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere
eskain daitezke. Galde ezazu!
Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-12:30
Arratsaldez: 14:30-19:00.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

Posta elektronikoa: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

Sina ezazu justiziaren alde

Ainhoa Agirreazaldegí / Bertsolaría



Fikziozko filme bateko gidoia izan zitekeen egun Euskal Herrian gertatzen ari dena. Guztiok ezagutzen ditugu PPK adierazpen askatasuna lurperatzeko behin eta berriz egin dituen ahaleginak.

Azken urte honetan ere bi saiera garrantzitsu egin ditu, baina Mahai Nazionala espetxeratzea eta Egin ixtea baino ez dute lortu.

Badirudi Herri Batasuna ilegaltzea dela hurrengo helburua. Gizarte faxista batean bakarrik dira posible hainbeste injustizia.

Ezin diegu utzi milaka eta milaka euskaldunen hitza baliogabetzen; ez dugu Herri Batasuna bazterterik nahi, baina garrantzitsua da hurrengo legislaturarako politikoki prestatua egotea.

Hari hortatik sortu da Euskal Herriarrok izeneko talde berria.

20.000 sinadura bildu behar dira talde honek aurrera egin dezan. Azken injustizien aurrean Euskal Herriak eman duen erantzuna ikusita, ziur nago 20.000 sinadura baino askoz ere gehiago lortuko direla. Oraingoan ere, Euskal Herriak beste lekzio bat gehiago emango dio Espainiari.

Euskal Herriak behar duena askatasuna lortzea da eta hortarako bidea etenez ez da ezer lortzen. Euskal Herriarrok saiatuko da Eus-

"Azken injustizien aurrean Euskal Herriak eman duen erantzuna ikusita, ziur nago 20.000 sinadura baino askoz ere gehiago lortuko direla"

kal Herriko askatasunaren alde bidea egiten eta pausurak ematen. Baina hortarako beharrezkoa da guztion artean bultzada handi bat ematea eta Euskal Herrian askatasuna adierazteko prest jende asko dagoela erakustea.

Horregatik guztiagatik eta etsaiari ez garela errez kikiltzen erakutsi behar diogulako, garrantzitsua da guztiok gure sinadura ematea.

Zu ere injustizia honen aurka baldin bazaude, askatasunari hegala moztu nahi ez badizkiozu eta etorkizunean Euskal Herriko arazo asko konpon ditzakeen taldea hauteskundeetan egotea nahi baduzu, eman ezazu zure sinadura. Nahi dituzten atxiloketa eta injustizia guztiak egingo dituzte, baina gure desadostasuna azaltzen dugun bitartean adierazpen askatasunak bizirik iraungo du. B

barruan



Gaspar Delgado

HHI-EPAko zuzendaria

"Oso atsegina da helduek klasean gauzak nola deskubritzen dituzten ikustea"

8. orrialdean.



Enrike Nieto

BKEko entrenatzailea

"Taldeak moral handia dauka eta helburua mailari eustea da"

27. orrialdean.



A. Arizmendi

Igeri monitorea

"Gaur egun ez dut batere igeri egiten; nahiago dut footing eta pesak egin"

33. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1764. Irailaren 12an Peñafloredako kontearen El Borracho Burlado opera antzestu zuen konteak berak sortutako konpainia batek, estrainekez, Bergarako udaletxearen areto nagusian.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1896. Irailaren 7an atzerrian Lehendakaria izan zen J.M. Leizaola jaio zen Donostian.
1902. Irailaren 3an Euskalduna olan lehen itsasuntzia ureratu zen.

MUNDUAN GERTATUA

1522. Irailaren 6an mundua aldenik alden itsasuntzian lehen aldiz zeharkatu ondoren, Sanlucar de Barramedara (Cadiz) heldu zen Juan Sebastian Elkano getariarra.
1972. Irailaren 8an UNED sortu zen estatuan.

zozketak

BONU LOTO

Eguakitza 4
12-14-20-26-45-49 (osag.28/er.8)

Astelehena 7

1-3-20-22-23-38 (osag.12/er.0)

Martitzena 8

17-21-26-30-48-49 (osag.22/er.7)

Eguaztena 9

2-4-9-20-26-31 (osag.38/er.9)

PRIMITIVA

Zapatua 5
3-9-11-33-42-45 (osag.37/er.1)
Domeka 6 Gordoa
3-5-18-20-38-49 (osag.21/er.4)

ONCE


Eguakitza 4: 01.373 (K. seriea: 111)
Astelehena 7: 99.390
Martitzena 8: 86.960
Eguaztena 9: 46.946

BESTE BATZUK

Osintxuko jaiak, Palmara bidaia: 9.176

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Ipar fronte batek hodeiak ekarriko dizkigu astebukaeran. Goiz partean txarrago egingo du eta euria egingo du. Bestalde, tenperaturak behera egingo du zertxobait eta haizeak iparmendebaldetik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: irailak 6



Ilbehera: irailak 13



Ilberri: irailak 20



Ilgora: irailak 28

Eguzkia

Domeka, irailak 13



Sortu: 07:56



Gorde: 20:29

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 3	30	17	-
Eguakitza 4	27	18	14,7
Zapatua 5	25	15	-
Domeka 6	32	11	0,5
Astelehena 7	23	15	0,4
Martitzena 8	29	10	-
Eguaztena 9	32	11	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Aixkiratu

Adiskidetu. Bakeak egin, edo lagunak egin berriro, haserrealdi baten ondoren.

- *Itxuria Mikel da bere nobixia aixkiratu die, alkarrekin ikusittut behintzat eta.*

- *Umiak, aserretu eta aixkiratu belaxe eitten die.*



hamaika ikusteko jaio ginen!

Mobilen arriskuak

Telefono mobilek transmititzen dituzten uhinak ez dute minbizirik sortarazten, baina baliteke aurretik minbizia izanez gero, honen garapena bizkortu eraztea. Virginia Commonwealtheko (EEBB) unibertsitateko ikerketa-lan batek erakutsi duenez, uhinok zelulen multiplikazio abiadura bikoiztu egiten dute. Dena dela, oraindik ez dago laborategiz kanpoko proben emaitzarik.

Farmaziak

Eguakitza 11:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 12:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 13:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 14:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 15:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 16:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

GAUEZ. AMEZUA Arrasate. Tf. 943 79 09 74.

Eguena 17:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

GAUEZ. ZABALA Arrasate. Tf. 943 77 16 30.

Ogia

Domeka 13: Konde.

Eguaztena 16: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 76 12 94
Añbulataria (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 13 49
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 36 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak




Ismene Gorostidi
Irailaren 13an
urtebete. Zorionak!
Etxekoak.



Unai Gorostidi
Irailaren 13an
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Mercedes Larrañaga
Irailaren 11n
71 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Emiliano Horrillo
Irailaren 2an
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



Aitor Olañeta
Irailaren 13an
2 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Luis Ugarteburu
Irailaren 9an
urtebetetzea.
Zorionak!
Familia.



Jaione Carpintero
Irailaren 12an
8 urte. Zorionak!
Familiakok.



Ainhoa Alonso
Irailaren 11n
9 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Xabier Urrutia
Abuztuaren 12an
9 urte. Zorionak!
Diatz eta familia.



Andoni Arruti
Abuztuaren 13an
7 urte. Zorionak!
Ariane eta familia.



Ion Errasti
Irailaren 11n
12 urte. Zorionak!
Gurasoak.



Andoni Badiola
Irailaren 6an
6 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Rita Orbe
Irailaren 11n
10 urte. Zorionak!
Ama eta
aneia Gurutz.



Gotzon Odroizola
Irailaren 15ean
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Iñigo Agirezabal
Irailaren 13an
3 urte. Zorionak!
Luis Mari, Esosi
eta Mikel.



Amaia Irastorza
Irailaren 13an
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Dori Bernal
Irailaren 8an.
Zorionak! Naiara,
David, Alex
eta familiakoak.



Christian Moreno
Irailaren 12an
2 urte. Zorionak!
Gurasoak
eta arreba Miriam.



Arantxa Arizaga
Irailaren 7an
8 urte. Zorionak
bihotzez! Eneko,
Maider eta familia.



Maider Uribe
Irailaren 5ean
3 urte. Zorionak
bihotzez! Arantxa,
Eneko eta familia.



Amaia Alzelai
Irailaren 14an
3 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Maite Mayo
Irailaren 16an
urtebetetzea.
Zorionak! Familiakoak
eta bilobak.



Ane Iizarralde
Irailaren 6an
4 urte. Zorionak!
Familiakoak
eta lagunak.



Maialen Iparragirre
Irailaren 10ean
4 urte. Zorionak!
Familia eta lagunak.

ESKER ONA

Domingo Agirrebeña Auzmendi

Arrasaten hil zen
1998ko irailaren 2an,
84 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi
eskerrik asko familiakoen partez.*

ESKER ONA

Eulalia Lugarizaristi Zabala

Antzuolan hil zen 1998ko abuztuaren 15ean,
87 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi
eta doluminak adierazi zenizkigutenoi
eskerrik asko familiakoen partez.*

URTEURRENA

Jesus Perez Calleja

Lehen urteurreneko meza domekan,
irailak 13, eguerdiko 13:00etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde
aurretik eskerrik asko familiakoen partez.*

jaioetakoak

BERGARA

Miren Txurruka Loidi
Uztailak 24

Unai Barragan Leniz
Irailak 3

Biken Larrañaga Moñux
Irailak 4

June Iturbe Madinabeitia
Irailak 4

ANTZUOLA

Enara Beitia Irizar
Uztailak 4

Jon Mata Etxaniz
Abuztuak 7

hildakoak

BERGARA

Domingo Agirrebeña Auzmendi
Irailak 2, 84 urte

Iñaki Iza Zabala
Irailak 7, 50 urte

ANTZUOLA

Eulalia Lugarizaristi Zabala
Abuztuak 15, 87 urte



Xabier Pairs
Irailaren 10ean
20 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Gorka Nin
Irailaren 11n
20 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Aritz Alonso
Abuztuaren 19an
20 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Laura Cid
Irailaren 13an
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.

MUSIKA

► **Assholes, The Elevators eta The Nightrains** gaur, eguakitzan, 23:00etan Pol-Polen.

ERAKUSKETAK

► **Andres Trompetak** lore eta hostoekin egindako konposizioak Bergara Kafe Pentsioan ikusgai, irailaren bukaerara arte.

► **Gorka Elorzaren oleoak** eta plumulak Nahikarin.

IKASTAROAK

► **Txalaparta ikastaroa** irailaren 24tik azaroaren 22ra arte, ostegunetan 19:00etatik 21:00etara Gartzela Zaharrean. Izen-ematea (1.500 pezeta Jarduneko bazkideentzat, 2.000 gainontzekoentzat) irailaren 22a baino lehen Gartzelan. 943 76 08 19.

DEIAK

► **Pol-Polek eta Gorla Alpinok** nagusiei zuzenduriko mendi irteera iragarri dute irailaren 27rako. Ibilbidea Ernialde-Ernio-Errexil izango da eta irteera 8:00etan egingo da Frontoitik. Izen-ematea Pol-Polen: 943 76 48 51.

► **Justo Garate Arriola**

DANTZALDIA

La Parranda

Non: San Martin plazan
Noiz: zapatuan, 23:00etan

La Parranda bergarar taldearen rantxe-rekin dantzan egiteko aukera izango da zapatu gauean. Leire Ibarzabalen asmoari jarraituz, orain dela bi urte pasatxo sortu zen La Parranda eta gaur egun zortzi lagun dira taldean: Leire bera (ahotsa eta bibolina), Nagore Sanz (baxua), Asier Elorza (ahotsa eta tronpeta), Iokin Zubillaga (bateria), Aitor Elorza (saxoa), Zigor Martinez (saxoa), Iosu Zeziaga (trikitia) eta Jesus Martinez (kitarra). Dagoeneko 37 kantuko erreperatorioa osatu dute eta rantxe-rez gain, tex-mex eta country estiloko

hainbat abesti jotzen dituzte. Jendeak eza-gutzen dituen kantuak dira gehienak, "La mochila azul", "Jalisco", "Volver, volver", "Caballo prieto", "Juan Charrasqueado" edota "Adelita" tartean. La Parrandakoek kantu propioak sortu eta datozen hilabateetan, diska bat grabatzeko asmoa daukate promozioari begira. Grabazioa gautzekotan, baliteke Arrasateko Shot etxerekin grabatzea. Bien bitartean, domekero Zabalotegin entsaiatzen jarraitzen dute.

Udan ere lanpetuta izan ditugu La Parrandakoak, izan ere Euskal Herriko dozena bat herritan izan dira jotzen, entzulego gaztea zein heldua erakarriz. Kanta martxosoak lasaiagoekin tartekatzen dituzte euren emanaldietan eta hainbat ezkontza ere alaitu izan dituzte Mexikotik inportatutako doinuekin. B



Abuztuan zehar hainbat plazatan ibili ondoren, zapatuan Bergaran izango ditugu La Parrandakoak.

bea. 1998ko deialdian soziologiako gaiet zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz egingo da, bekaren iraupena 11 hilabetekoa da eta diru zenbatekoa 935.000 pezetakoa. Dokumentazioa aurkezteko epea irailaren 30era bitarte-

an egongo da zabalik. Argibideak 943 77 91 58 zenbakian.

► **Egin egunkariaren aldeko tonbolarako** materiala Txamonix, Pol-Pol, Ariznoa, Zuhaitzi edo Biko tabernetara eraman daiteke.

► **Emakundek** parte hartuko du Europako emakumeek Saharako emakumeekin irailaren azkenetan egingo duten solidaritate topaketan. Bergarako bi lagun ere izango dira Saharan, materiala eramanez. Bulegoko materiala

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

(ordenagailuak, programak, fax papera...) eta txanpuak, gelak, pardelak eta horrelakoak jasoko dira irailaren 22ra arte Elkar fotokopiadenda, Aldi-Irala supermerkatuan eta Goiara lurrindegian.

► **EAJk** irailaren 27an Salburuan ospatuko duen Alderdi Egunerako autobus eta bazkari txartelak Batzokiko tabernan salgai. Irteera goizeko 9etan egingo da.

OHARRAK

► **Mariaren Lagundiko ikasleek** ondoko egunetan hasiko dute ikasturte berria: 4-16 urte bitartekoak irailaren 14an, 10:00etan; lanbide heziketakoak hilaren 21ean, 10:00etan; 2 urtekoek 28an, 10:00etan eta 3 urtekoak irailaren 17an, 10:00etan.

► **Ipintza Institutuko** Batxilergoko aurkezpena: irailaren 18an, 10:00etan, lehen mailakoak eta 11:00etan 2. mailakoak.

► **Aranzadi Ikastolako** DBHOko lehen eta 2. mailakoan aurkezpena datoren egunean, hilak 17, 10:00etan San Martin plaza. 943 76 90 71.

► **Bergarako Helduen Eskolak** (HHI-EPA) 1998-99 ikasturterako matrikula epea zabaldu du.

Irakaskuntza ofiziala eta doanekoa da. Argibideak Barrenkale 33.eko 2. pisuan (943 76 44 52).

► **Hautesleen zerrenda** jendeaurrean egongo da ikusgai martitzenera arte Idazkaritzako bulegoetan, interesatuek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

► **Barruko igerilekuak** irailaren 21ean zabalduko dira eta, beraz, kanpokoak hilaren 20an itxiko dira. Eguraldi txarra egiten baldin badu baliteke kanpoko pizsinak hilaren 17an itxia eta barrukoak zabaltea.

► **Antzuolako Udalak jubilatuetako taberna** adjudikatu nahi du. Taberna hartzeko interesatuek Antzuolako Udaletxera jo dezakete informazio eske.

KINTADAK

► **1933an** jaiotakoen bazkaria hilaren 20an Azepeitxi jabetxean. Aurretik, ordubatean, meza Santa Marinan. Izen-ematea Azepeitxin edo Intxorta tabernan.

► **1948an** jaiotakoen afaria irailaren 26an Lasa jabetxean. Aurretik meza izango da Santa Marinan. Afalostean, dantzaldia. Izen-ematea (8.500 pezeta) Kutxan edo Euskadiko Kutxan irailaren 22ra arte.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Los amantes del Circulo Polar

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema

Torrente, el brazo

tonto de la ley
Eguakitza: 22:00.

Arma letal 4

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Armageddon

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Godzilla

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

Expediente X

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola

Kundun

Eguakitza: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

El ganador

Eguena, zine-kluba: 20:00.

AZKOITIA. Baztartz

Los visitantes regresan...

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Expediente X
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

LOS AMANTES DEL CIRCULO POLAR

Zuzendaria: Julio Medem.

Aktoreak: Najwa Nimri, Fele Martinez, Nancho Novo.

Julio Medemen azken filmeak Veneziako Jaialdian parte hartzen du astebukaera honetan. Bere estilo befeziari eutsiz, donostiarrak *Anak* eta *Ottok* txikitatik bizi duten maitasun istorioa landu du. Kasualitateak, patua edota amodioaren idealizazioaren inguruan egindako filme honek egitura zirkularra dauka, Finlandian zirkulua itxiko delarik...



ARMAGEDDON

Zuzendaria: Michael Bay.

Aktoreak: Bruce Willis, Billy Bob Thornton, Ben Affleck.

Hollywoodeko zine katastrofikoaren modari jarraituz, oraingo honetan, petroleo putzutan lan egiten duen espezialita bati (Bruce Willis) luraren kontra datorren meteorito bat lehertzeko agindua emango diote. Efektu berezi ikusgarrienak tarteka, tentsioa mantenduko da filmearen amaierara arte.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroak (HHI-EPA) irailaren amaieran ekingo dio ikasturte berriari. Aurten, nobedade modura, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak emango dira eta, era berean, urtean zehar antolatzen diren tailerrei jarraipena eman nahi zaie. Gaspar Delgado zuzendariarekin hizketan izan gara.

G. DBHko ikasketen ezarpenak zelako aldaketak ekarriko ditu?

E. Hemendik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua eskainiko da bakarrik. Aurretik eskola graduatua dutenek bi lauhilekotan banatutako ikasturtea egin behariko dute eta gainontzekoek bi ikasturte behar izango dituzte. Dena den, matrikulatutako jendeak eskola graduatua eskuratu ahal izango du, hiru esparruak (komunikazio esparrua, esparru teknologikoa eta esparru sozio-kulturala) gainditu eta proba libreerara aurkeztuz, ikasgaien konbalidazioa lortzeko.


Bestalde, gaztelera eta euskara parekatuko dira aurten. Jasotako eskaeraren arabera ekingo da eskaintza baina ikasleek zein hizkuntzatan ikasi nahi duten aukeratu ahal izango dute. Bergarako zentruan, esate baterako, irakasle guztiek klaseak euskaraz emateko gaitasuna daukate.

G. Zein da ikasle tipoa?

E. Lehen, eskola graduatua lortzera gazte gehiago etortzen zen baina orain bestelako eskaintza daukate, tailer okupazionalekin eta abar. Azken urteotan 45 urtetik 60 urtera bitarteko ikasleen kopurua haunditu egin da. Gehienak emakumeak izaten dira. Kasu as-

GASPAR DELGADO
HHI-EPAko zuzendaria

“Oso atsegina da helduek klasean gauzak nola deskubritzen dituzten ikustea”



Gaspar Delgado elgoibartarrak hiru urte daramatza zuzendari lanetan.

kotan seme-alabak kanpora ikastera joan edo ezkondu egin zaizkie eta hutsune bat nabaritzen dute. Eta oraindik ikasteko edo ikasitakoa gogoratzeko adinean daude. Hemen ez dugu bakarrik irakaskuntza formalaren (matematikak, hizkuntzak, eta abar) eskaintza egiten baizik eta tailerrak ere antolatzen ditugu noizean behin

“Gehienetan gure ikasleek beraiek uste baino barruko aberastasun handiagoa daukate. Autobaloratzen ikasi behar duen jendea izaten da”

eta garapen pertsonalarekin lotutako ekintzak ere bai. Eta horrela aktibo mantentzen dira, eurentzat terapia moduko bat da. Gizonen kasua ezberdina da, jubilatutakoan antzeko bizimoduarekin jarraitzen dutelako. Baina emakumeak seme-alabei dedikatuta bizi izan dira eta hauek alde egitean hutsunea haundia izaten da. Hemen, gauzak ikasteaz gain, beste jende bat ezagutzeko aukera daukate eta horrek beste ate batzuk zabaltzen dizkie.

G. Horrelako ikasleekin lana atsegina izango da...

E. Guztiz. Kasu askotan ez dute izan kulturara iristerik eta oso atsegina da gauzak nola deskubritzen dituzten ikustea. Esperientzia handiko jendea da; gehienetan beraiek uste baino barru-aberastasun handiagoa daukate. Autobaloratzen ikasi behar dute. Piskana landu ez duten izpirituko eta analitikoak gartzen joaten dira eta beraien irriparre edo eskertza bat soldata baino gehiago estimatzen duzu.

G. Ikasle kopuruaren eboluzioa zelakoa izan da?

E. Bergaran azken urteotan 100 bat ikasle izan ditugu urtero, egunero klaseara etortzen direnak dira horiek. Horretaz gain, urtean zehar izaten diren tailerrak direla eta, kopuru hori gehitu egiten da. Jendeak HHI zentroei buruz zuen ikuspegia aldatzen joan da; ikasleak eskola graduatua lortzera etortzen zirela uste zuen jendeak baina hori gure lanaren aspektu bat baino ez da. Lehenbiziko helburua behar handiena duen jendeari atentitzea da eta hortik aurrera beste maila batean dagoen jendea jasotzen dugu. Gogoratu, azkenik, irakaskuntza ofiziala eta doanekoa dela gurea. B

Gripearen kontrako kanpaina astelehenetik urri amaierara arte

65 urte baino zaharragoentzat eta hainbat gaisorentzat

Datorren astelehenean jarriko dute abian gripearen aurkako kanpaina. Kanpaina 65 urtetik gorakoei eta 65 urte baino gazteagoak diren eta bronkitis kronikoa, bihotzeko gaisotasuna, diabetesa edota giltzurrun edo gibelego gaisotasunak dituztenei zuzenduta dago.



Eduardo Gomez, Bergarako ambulatorioan gripearen kontrako kanpainaren arduraduna.

65 urtetik gorakoei ez dute bolanterik beharko txertoa hartzeko; bai, ordea, 65 urtetik beherakoei.

Kanpainak urriaren 30era arte irungo du. Ambulatorioan astelehenetik eguakitzera 10:30etatik 12:30etara hartu ahal izango da txertoa. Bestalde, Mizpirualde egoitzan, kiroldegian eta Osintxun ere emango dute. Mizpirualden, hil honen 18an, 10:30etatik 12:30etara; Kiroldegian, urriaren 9an, 10:00etatik 11:00etara eta Osintxun, urriaren 16an, 10:30etatik 12:30etara.

Zaharrentzat eta aipaturiko gaisotasunen bat dutenentzat gripearen kontrako txertoa hartzea beharrezkoa bada ere, badira ez hartze-

ko joera dutenak, gutxienak izan arren. "Horren inguruan mito faltsu bat sortu da eta badaude txertoa hartu nahi ez dutenak, euren osasunarentzat kaltegarria izan daitekeela uste dutelako. Gainera, lehen, mediku batzuk txertorik ez hartzea gomendatzen zuten. Hori gaur egun ez da horrela eta txertoa hartu behar duten guztiek har dezatela gomendatzen dute medikuek" esan digu Eduardo Gomezek, Bergarako ambulatorioan

gripearen kontrako kanpainaz arduratzen denak.

Ambulatorioan eman dizkiguten datuen arabera, iaz gripearen aurkako 1.700 txerto jarri ziren; horietatik 102, Mizpirualde zaharren egoitzan. Ipin ziren guztietatik, 1.388 txerto 65 urtetik gorakoei jarri zitzaizkien eta 312 gazteagoei. Ambulatorioko iturrien arabera, iaz beste urte batzuetan baino txerto gutxiago jarri ziren eta ez dakite beherakada horren arrazoia.

Haurren osasun azterketak ambulatorioan

Bestalde, ikasturte honetako aurrera, 6, 8, 10 eta 14 urteko neska-mutiokoei osasun azterketak ambulatorioan egingo zaizkie eta ez euren ikastetxeetan orain arte egin den moduan. Horretarako, aurretik, txanda telefonoz eskatu beharko da (943 76 10 82). Txertaketak, ostera, ikastetxeetan egiten jarraituko dira ikasturte honetan. B

PANA DE ROKUA
TATETXEAL

Kontxi Idigoras
Asteburuetan
bertako babak eta sahieskia

SALBADOR 10 ELGETA Tf. 943 76 82 73

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

Maxim's

☎ 943 76 20 61

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil

Irizar 3. 943 76 16 14
Ibargari 8. 943 76 54 73



Berpizkunde garaiko fatxada bikainaren harriaren egoera aztertzen izan ziren abuztuan tekniko eta agintariak.

Egino Mallearen fatxadak konpontzeko lanak hasi dira

Egino-Mallea etxearen fatxada nagusia eta beste hiru aldeak konpontzeko lanak aste honetan hasi dira. Eguastenean ekin zioten andamioak jartzeari eta datoren astean hasiko dira birgaitze lanak. Eudald Guillamet zaharberritzaile ospetsuaren aginduetara egingo dira lanak. Guillamet joan zen abuztuan izan zen Bergaran, Udal museologoarekin eta Suradesako eta Bergarako Udaleko agintariekin batera, etxearen fatxada nagusiko harriaren egoera

aztertzen. Fatxada nagusia asko hondatu da azken urteotan, erosioak, hezetasunak eta kontaminazio atmosferikoak eraginda. Harriaren konposizio geologikoa aztertu eta denboran zehar izandako aldaketen zergatiak argitzeko muestrak hartu ondoren, teknika aurreratuenak aplikatuko dira fatxada nagusia eraberritzeko.

Lanen aurrekontua 10 milioi pezetakoa da; Gipuzkoako Diputazioak 3 milioitako dirulaguntza emango

du eta gainontzeko 7 milioiak etxearen jabeek eta Udalak ipiniko dituzte.

Egino Malleak lau jabe ditu gaur egun eta horietako hiru bertan bizi dira; bestea, Logroñon. Konponketa-
ren gastuak ordaintzeko Udalaren eta jabeen artean izan diren tira-birak direla eta, obrak atzeratu egin dira. Logroñon bizi den jabearekin izan dira arazoak, baina uztailen adostasunera heldu ostean, obrak ahalbailehen hasi nahi izan ditu Udalak. **B**

Urbanorik ez Martoko eta Zubiaurretik

Uhola erreka bide-ratzeko egiten ari diren obrak direla eta, San Antoniotik Martoko eta Zubiaurrerako bidea itxita izango da pare bat hilabetetan. San Antoniotik bidegurutzearan inguruan kalea aldenik alden jaso behar dute eta ezinezkoa da bertatik ibilgailuak pasatzea. Hori dela eta, urbanoa ez da bertatik pasatuko obrak dirauten bitartean.

Sutea trenbide inguruko ortuetan

Masterrekako azken zenbakien parean, trenbide ondoko hortuetan, sutea izan zen eguasten arratsaldean. Antza denez, ortuan zebilen herritar batek eguerdi aldean sua egin zuen eta berak itzalita laga zuela uste bazuen ere, arratsaldeko hirurak aldera haizeak sua berri-
zuzen ere piztu egin zuen eta sugarrek inguruko arbolak hartu zituzten. Udaltzainak eta suhiltzaileak laurak aldera iritsi ziren eta sua berehala menderatu zuten.

AGIRREBEÑA

oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga 5 ☎ 943 76 18 29

MUJIK UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Deco-Textil
ZANGITU

Etixerako lenzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Kontsulta gutxiago jaso arren sekula baino turista gehiago

Bestetan baino bergarar gutxiago agertu da bulegora

Iaz baino kontsulta gutxiago egin dira aurten udan Turismo bulegoan, baina kanpotar gehiago ibili da Bergaran.

Guztira 1.308 kontsulta egin dira aurten, iaz baino 255 kontsulta gutxiago. Horrek ez du esan nahi, ordea, Bergara bisitatzea etorri diren kanpotarrek kontsulta gutxiago egin dituztenik, iaz baino 13 kontsulta gehiago egin baitituzte, baizik eta bergararrak iaz baino gutxiago gerturatu direla Turismo bulegora informazio eske (iaz baino 262 kontsulta gutxiago).

Turismo bulegoa ekainaren 26tik joan zen domekara arte izan da zabalik eta Xabier Aranburu Udal museologoak balorazio positiboa egin du: "sekula baino kanpotar gehiago etorri da aurten Bergarara, batez ere abuztuan, eta turista askok lo egin du Bergaran. Bulegoan, esate baterako, 22 kontsulta egin dira, 55 pertsonaren izenean, Bergaran lo egiteko informazioa eskatzeko eta beste 38 kontsulta egin dira, 91 pertsona-

ren izenean, Bergaran bazkaltzeko. Datu esanguratsuak dira, kontutan izanda turista guztiak ez direla bulegora hurbiltzen". Honen haritik, esan dezagun museologoak turismo seinalizazio egoki bat botatzen duela faltan Bergaran. Honen inguruko azterketa eginga dauka Udalak eta Jaurlaritzaren dirulaguntzen zain dago herrian zehar turismo seinalizazio egokia ipintzeko.

Taberna eta jatetxe askok atek itxi egiten ditu

abuztuan oporrak hartzeko eta museologoaren iritziz esfortzu bat egin beharko lukete jabeek abuztuan zabalteko, pixkanaka bada ere, turismoaren gorakada nabaria delako Bergaran azken urteetan.

Beste urte batzuetan ez bezala, Turismo bulegoa zabalik izan da aurten iraileko lehen astean eta abenduarien 8ko zubia aprobetxatuz ere zabaldu egingo dute, iaz Euskadira jende asko etorri ei zelako. **B**

Eginen aldeko tonbola jarriko da San Martinetan

Egin eta Egin Irratiaren aldeko tonbola jarriko da San Martin jaietan Etxagi eta Arrano tabernen artean dagoen kale kantoian. Herritarrek emandako era guztieta-ko materiala izango da bertan: diskoak, liburuak, arropak...

Egin eta Egin Irratiaren ixtearen kontra eta adierazpen askatasunaren alde dagoen herritar multzo baten ekimenari esker jarriko da tonbola. Herritarrek lagatako materiala egiten ari dira egun hauetan honako leku hauetan: Txamonix, Pol-Pol, Zuhaitzi, Ariznoa eta Biko. Norbaitek materiala eman nahi badu, aipatutako tokietan laga dezake.

Tonbola San Martin bezperan eta San Martin egunean, arratsaldean, jarriko da eta 200 PTA.tan salduko dira txartelak. Hiru erosiz gero, 500 PTA kostako dira.

Adierazpen Askatsunaren aldeko herri ekimen honetako kideek alde zuzenetik eskerrak eman nahi dizkie, Egin eta Egin Irratiaren alde dirua biltzeko laguntza eman duten guztiak.

TURISMO BULEGOAN EGINDAKO KONTSULTAK

	1995	1996	1997	1998
BERGARARRAK	226	283	531	263
EUSKAL HERRIKOAK	220	244	302	300
KATALANAK	262	272	300	196
MADRILDARRAK	106	112	86	92
BESTE NONBAITEKOAK	295	241	150	232
EUROPA ETA MUNDUTIK	123	81	152	200
GUZTIRA	1.006	950	989	1.283
BESTE BATZUK	18	22	42	25
BERGARATIK KANPOKOAK	1.024	972	1.032	1.045
GUZTIRA	1.250	1.255	1.563	1.308

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

Mujika
gozologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errelenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

Berrigara

334 zenbakia.
1998ko irailaren 11.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa:
Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elepuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketak: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan; Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

EGIN TONBOLA

Kaixo herritarrok! Denok dakigu Egin egunkaria eta irratia iren xtearen inguruan sortu den egoera larria zein den. Horregatik Bergarako jende multzo bat elkar-tu gara guztiona den egunkari honi ahal dugun heinean, behintzat, laguntzekotan.

Hasiera batean San Martinetan tonbola bat egitea otu zaigu eta hau lortzeko denon parte-hartzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu.

Tonbola honetarako material bilketa honako leku hauetan egingo da: Txamonix, Pol-Pol, Zuhaizti, Ariznoa eta Biko.

Material ezberdinak hartuko ditugu tonbolarako: arropak, liburuak, diskoak... Beraz, anima gaitzen eta eman diezaiozun ahal dugun bizitza adierazpen askatasunari. Aurrez, eskerrak emanez, agurtzen da:

Adierazpen askatasunaren aldeko berri ekimena

JARRAIEN GUTUNARI ERANTZUNA

Joan zen astean Bergarako Jarrairen izenean E.M.A.k sinatuta BERRIGARAN agertu zen eskutitzaren aurrean, bertan esaten ziren hainbat kontu argitu nahi ditut, egiak ez direla uste baitut.

Jarrairen gutunean zera esaten da: "Abuztuaren 30eko gertakarien ostean, gure 'alkate' den Victoriano Gallastegik telebistei eginko adierazpenetan eta Plenoan, gazteok jo gintuen ekintza horien errudun". Honi buruz argi eta garbi laga nahi dut Plenoan ez nuela gazteen kontrako hitz erdirik esan, ezta onartutako mozioan ere. Hori demostratzeko gertakariak gaitzes-teko Udaltzako onartutako idatzia irakurri besterik ez dago. Hemen testu osoa jartzeko tokirik ez dagoenez, irakurri nahi duenak udal-etxe-ko idazkaritzan eskatu dezake testua.

Beraz, ez Plenoan ezta komunikabideei egindako

adierazpenetan ere, gazteak ez nituen gertakarien errudun jo, Jarrairen kartan esaten den bezala. Komunikabideen aurrean esan nuen 15-16 urteko gazte batzuk nire ustez manipulatu ak-tuatzen dutela eta era hontako gertakariak gazte horien eta Euskal Herriaren hondamena besterik ez dakartela.

Bestalde, Jarrairen gutunean esaten da: "Plenoan erdaraz irakurri zuen ekintza kondentatzeko mozioa". Hau ere ez da egia. Pleno Aretoan izan zirenek ikusi zuten moduan, mozioa euskaraz, lehenengo, eta, erdaraz, ondoren, irakurri nuen. Ez dago gezur haundiagorik, egia erdia baino.

*Victoriano Gallastegi,
Bergarako alkatea*

tira biraka: alex ugalde

Jaietako gauzarik txarrena beti kantu berdinak jartzen dituztela da. Ea San Martinetan.



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Donostiako Kontxako estropadak jarraitzen dituzu? Badaukazu talde faboritorik?



Dioni Arriolabengoa

Ez naiz sekula ikustera joan baina gustatzen zait telebistatik jarraitzea. Orioren jarraitzailea naiz, bi urtetan egondakoa naiz eta. Primeran dabilta gainera...



Juan Ruperto Alberdi

Bai, gustatzen zaizkit. Batzutan telebistatik ikusi ditut eta bertara ere joan izan naiz noizean behin. Domekan ezin naiz joan. Oriok irabaziko duela uste dut.



Marisabel Egibar

Bai, Donostian bertan egon izan naiz estropadak ikusten. Bestela, telebistatik ere jarraitzen ditut. Oriok irabaztea nahi izaten dut, plaiara hara joaten baikara.



Jose Mari Zenitagoia

Estropazalea sekula ez naiz izan baina domekan jubilatuetatik autobusa antolatu dute eta banoa ikustera. Eguna bertan pasau eta plan polita da.



Rosa Maria Flores

Batere ez. Ez zaizkit interesatzen eta ez naiz sekula joan Donostiara estropadak ikustera. Ez dakit nortzuk parte hartzen duten ere.



Xabier Retegi

Bai, telebistan ikusten dut. Donostian ere egon izan naiz, oso giro ona egoten da. Talde faboritorik? Mayc-ean lanean nagoenez, Orio animatu behar...

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Iñaki Larañagak deitu digu kalean aurkitzen dituen txakur kakekin asper-asper eginda dagoela esateko. Lurrera begira joan ezean, gero eta sarriago zapaltzen eizitu Espoloian dauden txakur kakak eta nazkatuta dagoela dio. Txakur jabeei eskatu nahi die kalera ateratzen ditzutenean kontu gehiagorekin ibiltzeko eta Espoloian egiten badute garbitu ditzatela kakok; bestela, ez dezatela txakurra kalera atera. Kale garbitzaileei, ostera, txakur kakak garbitzeko ahalegin gehiago egin dezatela eta udaltzaiei edo agintariei, kalean kaka egiten duten txakur jabeei isunak jarri diezaietela.

■ ikuspuntua: josune iñarra

Ditxosozko iraila

Irailako azterketak direla eta, maki-natxo bat eztabaida sortu da aurtengo ikasturtean, eta era guztietako iritzi eta kritikak jaso ahal izan dira gai honen inguruan.

Batzuek diotenez, irailako azterketak kentzearen ideia irakasleengandik sortu da. Era horretan, noski, irakasleek opor



zoia izango dute. Iazan ere, azken finean, nahiz eta beren seme-alabek azterketak ez gainditu izan, ez dute oporretan joateko inolako ezagopzenik izango.

Gaur goizean, bestalde, Javier Mar-

luzeagoak pasatzeko aukera paregabea izango dute.

Beste batzuek diotenez, ostera, gurasoek ere pozik egoteko arra-

kotegiren hitzak irakurri ditut Euskaldunon Egunkarian: "Azterketa hauek degradatzen ari dira; ikasleek ez dute atseginik uztailean eta abuztuan eta, gero, irailako azterketak egin ondoren, ikasturtea hastean, behar duen atseden hartzen du gazteak".

Horrelako nahi adina iritzi jaso ahal izango genituzke hemen, baina tarte txiki-gia da horretarako. Dena den, norbaiten iritzia entzutekotan ikasleren batena entzun beharko genuke, ezta? Ea norbait idaztera animatzen den! **B**



Hizkuntza Eskola Ofiziala

Otaola etorbidea, 29 EIBAR Tf. 943 20 06 48

MATRIKULA OFIZIALA 1998-99 MATRIKULA SOBREA K JASOTZEKO ETA PLAZA HARTZEKO EGUNAK

1. TXANDA

97-98 ikasturtean Eskolako ikasle ofizialak izan direnak. Klasera huts egiteagatik ofizialtasuna galdu dutenak txanda honetatik kanpo geratzen dira.

IRAILAK 16, GOIZEZ:

1. mailatik 5.era ingelesa, frantsesa eta euskara.

IRAILAK 17, GOIZEZ:

1. mailatik 5.era ingelesa.

2. TXANDA

Ofizialtasuna galdu duten ikasleak eta ofizialak izatera pasatu diren ikasle libreak.

IRAILAK 18, GOIZEZ:

1. mailatik 5.era ingelesa, frantsesa eta euskara.

3. TXANDA

Ikasle berriak H.E.O.etan inoiz matrikulaturik izan ez direnak eta mailakatze-azterketak egin dituzten ikasleak.

IRAILAK 21, GOIZEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara (18 urtetik gorakoak).

IRAILAK 21, ARRATSALDEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara (16 urtetik gorakoak).

IRAILAK 22, GOIZEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara (14 eta 16 urte artekoak).

OHARRAK

- Beharrezkoa da NANA edo eskatu denaren ziurtagiria aurkeztea matrikula egiteko.
- Ikasle ofizial eta libreek H.E.O.eko agiria aurkeztu beharko dute.
- Matrikula, sobrean jartzen duen egun eta orduan egingo da.
- Maila batean matrikula egiteko, aurreko maila gainditua izan behar da.
- 97-98 ikasturtean Zikloko azterketa egin dutenek bakarrik egin ahal izango dute matrikula hizkuntza bereko maila ezberdinetan, azterketa horretarako notak ikaslearen maila adieraziko duenak.
- Bulego ordutegia, astelehenetik ostiralera 9.30-13.00.
- Lekua ematerakoan kontutan hartuko da etortzearen ordena.

Ikasturte atarian euskara lantzen

Azken urteotan moduan, ikasturte berriaren atarian, **Jardunek** antolatutako **euskara errefortzuetan** ibili diren 2. mailatik 6. mailara bitarteko 14 ikaslek astebete

eman dute **Eginon** (Araba). Klaseak irteerekin edota jokuekin tartekatuta dituzte eta, orain, ikasitakoa frogatu beharko dute eguneroko klaseetan. Arabako kontzentrazio hau batez ere eskolan erabiltzen duten terminologia erreparatzeko egiten da, bide batez lagunartean primeran pasatzen dutela. B eredutik D eredura pasako diren 4 ikasleek aste honetan ere matematika eta euskarazko klaseak izan dituzte Gartzelan. Begirale lanetan **Maribi Visitacion, Ane Iturralde, Aitziber Muguruza, Maite Usabiaga eta Nekane Gabilondo** aritu dira.

Pirinioetako gailurretan

Karmen Abio eta Karlos Aspiazu osintxuarrek Pirinioetako hainbat gailur zapaldu dituzte abuztuan. Mendizale amorratuak, sasoi ezinhobean direla erakutsi dute, izan ere **Hiru Erregeen Mahaia, Auñamendi, Orhi, Arlas eta Lakartzelako** gailurretara iritsi baitira. Hamabost egunetan izan dira Pirinioetan eta hango paraje ederrekin gozatzeari batera, euren betiko afizioari eutsi diote. Bide batez, Karmen zoriontzeko aprobetxatuko dugu, eguaztenean, hilaren 9an, 70 urte bete baitzituen. Eutsi sasoiari!!




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Kalitateko hezkuntza


Miguel Altuna institutuak **ISO 9002 kalitate ziurtagiria jaso zuen** eguakitzean Donostiako Miramar Jauregian. Bergarako-ekin batera, **Tolosa eta Martuteneko Lanbide Institutuak** izan dira kalitate ziurtagiria jasotzen duten Estatuko lehendabiziko zentruak. Hezkuntzaren kalitatea zaintzeaz batera, ikasleen, irakasleen eta administrazio pertsonalaren hobekuntza etengabea dira ziurtagiri honen helburu nagusiak. **Inaxio Oliveri** Hezkuntza sailburuak diploma bana banatu zien ikastetxeetako zuzendariari, hezkuntzako kalitatearen inguruan Donostian izan den ikastaroaren amaiera aprobetxatuz. Ikastaro horren barruan, **Miguel Angel Elkoroberezibar** bergarar irakasleak

Donostiako Easo Institutuko esperientzia azaldu zuen **Elena Fabra**ren laguntzaz "Kalitatea hezkuntzan: kuadreketa ereduak eta etengabeko hobekuntza" emandako hitzaldian. Argazkietan, hitzaldiaren irudi bat eta ezkerrean **Jose Mari Larrañaga**, Miguel Altunako zuzendaria, diploma jasotzen Oliveriren eskutik.



■ asteko menua: **zumelaga jatetxea**

Ahatea saltsan



ADRIAN ARRESEIGOR

Zumelaga jatetxeeko nagusia

OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- Ahate bat
- Taza erdi olio
- 6 berakatz buru
- 3 tipula
- 3 tomate heldu
- 4 azenario
- 2 laranja
- Koñak, ardo zuri eta ozpin apur bat

PRESTAKETA

- Lapikoa sutan ipini eta ahatea eta berakatzak lapikoa gorritu arte eduki.
- Barazkiak txikitu eta ahatearekin batera lapikoa gorritzen ipini.
- Koñak, ardo zuri eta ozpin apur bat gehitu.
- Ahatea eginda dagoenean lapikotik atera eta barazkiak bertan laga.
- Saltsa egiteko, barazkiei bi goilarakada irin, litro bat ur eta intxaur moskatua erantsi eta txinotik pasatu.
- Amaitzeko, ahatea erdibitu eta 10 minutuz egosten laga.

■ adituen esanetan

Eskolara bueltatzea

PAKITA URKAREGI, *psikologoa*

Opor osteko sindromea baino, ikasleek nagitasun pittin bat izaten dute ikasturte berriaren aurrean. Guztioi gertatzen zaigu antzerako zerbait; eguneroko bizimoduarekin etenaldi luzea izan da oporretan eta kosta egiten da hasieran berriz ere laneko edo eskolako ordutegira egokitzea.

Ikasleen artean, txikienak gogo handiagoz itzultzen dira eskolara, oporren ondoren berriro lagunekin elkartzeko. Alde horretatik, eskolaurreko eta lehen hezkuntzako ikasleen artean ez da arazo gehiegi izaten. DBHko ikasleek (12 urtetik 18 urtera bitartekoak) nagitasun gehiago daukate, gehiago kos-

tutzen zaie eguneroko disziplinarari ohi-tzea. Irakasleekin eta eman beharreko ikasgaiekin aldaketak badira, egokitze prozesua luzeagoa izan daiteke. Bi eta 3 urtekoen prozesua, berriz, ezberdina da: gogorra da ezagutzen duten toki batetik (etxea) toki ezezagun batera (eskola) joatea eta gutxienez hilabete-ko egokitzea behar dute, guraso eta andereñoen laguntzaz. Baina besteok adaptazioa nahiko aguro egiten dugu, bai lanean eta baita eskolan ere. Dena den, ikasturte hasieran baino, gerora azaltzen dira arazo gehiago, ikasleek ikasturte beraren zailtasunei (azterketak...) aurre egin behar dietenean. B

■ bergarako gordailutik

JESUITAK Imanol Sorondo

Lehenengo aldiz jesuita batzuk Bergarara 1551. urteko apirilaren 16an etorri ziren: Araoztar Antonio bergararra eta Gandiako dukea izana eta gero santua, Borjako Franzisko. Haundizkien etxeetan hartu zituzten lotarako. Urte horretan bertan gehiagotan azaltzen da Borjakoa; horrelako batean, Santa Anako ermitaren aurrean 10.000 baino gehiagorentzako eman omen zuen meza; oraingotan, ospitalera joaten da lotara; abenduan, berriz denak harrিতuta utzi ditu herriko kaleetan eskean ibili delako.

*“Jesuiten ekintzetan
gogojardunak, aitortzak
eta ondo hiltzeko
laguntzak sartzen ziren”*

Begararrak jesuiten ikastetxe bat nahi zuten, beraien lehenengoa izan zedin gure artean, eta horren atzetik ibili ziren, baina Oñatin sortu zuten, herri honetan Unibertsitatea egiten ari zirelako, agian, nahiz eta Araozek zer ikusia eduki Probintziako buru zelako.

Oñatiko ikastetxe hori gaizki joan zen, diru aldetik batez ere, eta horko buru zegoen Avilatar Gonzalok Bergarari eskaini zion ikastetxea. Berehala eman zitzaion baiezkua, bererak emanaz gainera, eta 1593.eko martxoaren 3an izenpetu zuten idatzia. Ordutik daukagu Seminario Etxea.

Hasieran ikasketak gure lehen mailako modukoak ziren; geroxeago, gaurko BUPen modukoak; 300 bat ikasle izatera iritsi omen ziren. Horrekin batera, jesuiten asmo eta ekintzetan sermoiak, gogojardunak, aitortzak eta ondo hiltzeko laguntzak sartzen ziren. 1767. urtean Erregek bidali egin zituen Estatutik eta aske gelditu zen etxea, horrela. Errege Seminario Handia egiteko. Bergara beti saiatu izan da goi mailako ikastetxeak edukitzen. B

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

IRUDI PERTSONALAREN AHOIKULARITZA

Titulazioa

Irudi pertsonalaren aholkularitzan goi mailako teknikaria.

Moduloak (Asignaturak)

- Lan zentroetan eginiko formakuntza (praktikak).
- Lan formakuntza eta orientazioa.
- Lan ingurunearekiko harremanak.
- Enpresa txikietako administrazioa, gestioa eta merkaturatzea.
- Edertasunari buruzko aholkularitza.
- Norberaren apainketarako teknikak.
- Jantzeko estilismoa.
- Protokoloa eta erabilera sozialak.
- Irudi pertsonala eta komunikazioa.

BERRIA
I. promozioa
Euskal Herrian




ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA

Titulazioa

Analisi eta kontrol kimikoan goi mailako teknikaria.

Moduloak (Asignaturak)

- Lan zentroetan eginiko formakuntza (400 ordu).
- Lan formakuntza eta orientazioa.
- Lan ingurunearekin harremanak.
- Laborategiko antolaketa eta gestioa.
- Entseiu fisikoak.
- Tresneria eta analisi kimikoak.
- Analisi mikrobiologikoa.
- Segurtasuna eta ingurune kimikoa laborategian.
- Teknika analitiko integratuak.
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.



SARRERA IRIZPIDEAK


- LOGSE Batxilergoa
- COU - REM II- FP II
- 20 urte baino gehiago dutenentzat sarrera froga

IRAUPENA

2000 ordu (2 kurtso)

MATRIKULA

Irailaren 18tik 21era.



ALMEN
IKASTOLA

Torrebaso z/g.
Tf. 943 71 49 07. Faxe 943 71 41 08
20540 ESKORIATZA Gipuzkoa

ARTEAK ETA KULTURAK

Koldo Eleizalde 2, behea (Bolu)
Telefona: 943 76 35 99

ARTE ETA ESKULAN TAILERRAK

- Marrazketa eta pintura
- Zeramika
- Ehungintza
- Makramea
- Enkuadernazioa
- Tailagintza egurrean
- Egur eta eskaiolazko dekorazioa
- Bolilloak
- Gantxiloa
- Punto-kruza
- Joste-lanak

**Iharduera
bakoitza
astean behin**

Monitorea: Ana Orgaz

Izen ematea eta informazioa:
Ardatza eta Igartza mertzeria

Ordutegia:

martitzen eta eguenetan
15:00-17:00 /
18:00-20:00
eguaztenetan
18:00-20:00
Eguakitzetan
19:00-21:00



AHOTS LANKETA

Helburuak

- Ahotsa zuzentzea
- Ahotsa zaintzea
- Ahotsari eustea
- Ahotsa garatzea
- Ahotsa indartzea

Monitorea: Cristina Cubillo

Izen ematea: Etxepare-Bilintx

Ordutegia:
astelehenetan
18:30-20:00



**Aisialdirako
plangintza integrala
eskaintzen duen
zentrua.**

ERLAJAZIO ETA ARNASKETA TAILERRA

- Erlajazioa eta sorkuntza
- Erlajazioa eta gorputz eta emoziozko espresioa
- Erlajazioaren erabilera bizitza arruntean
- Estresa jaitea
- Estresa kontrolatzea

MASAJE ETA AUTOMASAJE TEKNIKAK

- Masajea eta automasajea

Monitorea:
Ana Gallastegi eta Axier
Ariznabarreta

Izen ematea: Etxepare-Bilintx



YOGA IKASTAROA. YOGOTERAPIA

- Hasierako maila
- Edozein adinetarako
- Gizon eta emakumeentzat
- Lorik egin ezina, tentsioa, estresa, depresioa eta abar eragozten ditu
- Birika, hezur, nerbio-sistema, zirkulazio, bizkarrezur, eta abarrentzako oso onuragarria
- Nortasuna eta barne energia indartzen ditu

Monitorea: Gloria Ena

Izen ematea: Etxepare-Bilintx

Ordutegia:

astelehenetik eguenera
10:30-11:45
astelehen eta eguakitzetan
15:00-16:15
zapatutan
11:00-12:15



Txondorrak, karobiak, elurzuloak

Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiolak idatzia



- Juan Martin Elexpuren zuzendaritzapean, Miren Azkarate eta Xarles Videgain euskaltzainen aholkularitzarekin.
- Koloretako argazki ugariz hornitua.

**Begarako liburudendetan salgai
1.500 pezetatan.**

**Aurkezpena irailaren 15ean
19:30etan Udaletxeko Pleno Aretoan.**



BERGARAKO UDALA

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Marijo Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 21 zenbakia. 1998ko irailaren 11.

Mendietako bideak garbitzen herrian

Mendibideak garbitzeko laguntzak emango ditu Udalak

Udalak urtero mendibideak garbitzeko eskaintzen duen dirulaguntza eskatzeko epea irailaren 15ean, martitzena, amaituko da. Hala ere, dirulaguntza horiek ezingo dira izan garbitze lanaren kostuaren erdia baino handiagoak.

Baserrietara doazen bideak garbitzeko dirulaguntzak emango ditu Udalak. Mikel Larreak, alkateak, adierazi digunez "lehen auzolanean egiten ziren mendibideen garbiketak, baina aspaldian, eta jendeak geroz eta denbora gutxiago izaten duenez, enpresa bat kontratatzen da horretarako. Gure aldetik, kostu hori hain handia ez izateko dirulaguntza batzuk eskaini baino ez dugu egiten".

Erabaki honen arabera, interesatuek irailaren 15era arte, martitzena, izango dute eskaerak aurkezteko epea. Udalak, bere aldetik, 333.283. PTA.ko dirulaguntza eskainiko du, aurkezten diren eskaera guztien artean banatzeko. Dena dela emango den dirulaguntza, gehienez, kostuaren erdia izango da.

Arrandariko bidea

Bada herrian oraindik porlana bota gabeko biderik. Esaterako, Azaldegiatarakoa. Orain arte, Loietako bidegurutzean amaitzen zen *bide ona*. Arrandariko lau etxebizitzaren jabeek egindako eskaera bati erantzuteko, bide hori Arrandariko bidegurutzeraino iritsi da. Migel Angel Lizarralde, Arrandariko kideetako batek, azaldu digunez "Azaldegiatarako bidea Gaztelugain edo Uzarragaraino doazenen bezala egon beharko litzateke. Ho-



Loietako bidegurutzetik gora hasi dituzte asfaltatze lanak.

riek dira pista nagusienak. Orain dela bi urte bide horiek zaintzeko dirulaguntza ematea onartu zen. Guk, hala ere, bide hori egiteko 3 milioiko dirulaguntza jaso dugun arren, bakoitzak milioi erdi jarri behar izan dugu". Udalak, bere aldetik, Arrandariko bidegurutzeraino konpondu egin denez, etorkizunean Azaldegiatar ere jarraitu nahiko luke. Alkateak dioenez "gauza asko aztertu beharko lirateke hori egiteko. Gaur egun antzuolarrok ia ez dugu erabiltzen Azaldegiataro atsendenkua bertarako bidea ez baita onena. Baina bidea hobetuz gero, trafiko

gehiegi ez ote litzatekeen egongo ere aztertu beharko genuke. Gure nahia poliki-poliki mendibide hori egiten joatea da".

Kostu handia

Azaldegietarainoko bidea 9 milioi kostatuko litzateke. Proiektuarekin jarraituz gero, urtetik urtera partidak ematea litzateke egokiena, alkateak adierazi digunez. Oraingoz, Arrandariko bidegurutzeraino igo ahal izango da eta hortik aurrera, autoa izorratu nahi ez duenak, oinez egin beharko du bidea.

Irailaren 15era arte egongo da zabalik dirulaguntzak eskatzeko epea

Mikel Ariztirekin berbetan

Antzuolatik Irlandara

"Clonard elizaren ondoko Cabinen tabernan gaude (...) jabeak, Brendanek, badu euskaldunon berri. Antzuolatik etorritako lau lagunek bere etxean hartu dute ostatu. Urteroko ohitura.



Antzuolan izana naiz neu ere, iaz. Ezusteko edarra hartu nuen. (...) Antzuolar batzuk lehenengoz gure Festibalera etorri zirenean primeran pasatu zuten, itxuraz, eta urtero etortzen hasi zen Antzuolako jendea. Euskal Herrikoen bat ezagutu eta nongoa zen galdetuz gero, Antzuolakoa erantzun zizun. Horrexegatik, Euskal Herriko hiri nagusienetako bat zela uste genuen hemen. Joan den urtean joan ginen arte! (...) Fallseko Festibaleko euskal delegazio extraofiziala da Antzuola".

Hemen jaso dugun kontakizuna, "Su etena Belfasten" liburitik aterata dago. Imanol Murua eta Humberto Unzuetak idatzitako liburu honek, Antzuola eta Irlandaren arteko adiskidetasunaren berri ematen digu. Gainera, oporretatik bueltan jakin dugunez, aurten ere, bat baino gehiago izan da Antzuolatik Ipar Irlandara joan direnak. Bi herrien arteko harreman honek berba egiteko, urteetan Irlandara bidaiatzen duen Mikel Ariztirekin izan gara. Berak zortzi urte daramatza herrialde hartara joaten eta, berari esker, beste hainbat antzuolarrek ere lagunak

egin dituzte lurralde hartan.

Noiz joan zinen lehenengo aldiz Irlandara?

1989xan jua nintzan lehenengo aldiz. Dublinen izan nintzan familia batekin. Beste hiru hillabete Galwayn eta orduan Belfasten hango jentia ezagutu neban, eta ikasle batzukin bizitzen egon nintzan beste lau hillabete. Handik aurrera, urtero, agostuan jua naiz, Txia-pasera jua nintzan urtia kenduta.

Zer dauka Irlandak horrela erakartzeko?

Lagun pilla bat daukat han. Euskaldunen eta irlandarren artian harreman ona dago; arazo berdiñak daukagu eta oso jente jatorra da.

Zuek zarete Fallsekoak?

Bai, beste antzuolarrik egon barik zeguan. Nerekin jua da gero kuadriletako jente asko. Batzuk, gaiñera, behin baiño gehixatua izan die. Baiña urtero jua ten da bateren bat lehenengo aldiz; aurten Urko eta Txiki jua die.

Nora joaten zarete?

Lagun batzuen etxietara jua ten gara. Eztogu ordaintzen ezebe. Etxe bat guretako lagatzen doskue eta bost, sei edo hamar lagun egoten gara. Askotan Bilboko batzukin jua ten gara; liburu horretan be azaltzen die.

Aurten bi irlandar izan ditugu herrian

Bai, bat gaiñera laugarren aldiz. Asko gustatzen jakue Antzuola. Jentia oso zabala dala esaten dabe.

Nola izaten da abuztua han?

Negu partia nahiko lasaixa eta tristia da. Hamaiketan dana ixten dabe; illun egoten da, eurixa, haizia... Oso tristia da. Zapatuan bakarrik egoten da ambiente piskat. Agostua oso diferentia da. Lehenengo astian egoten die Sinn Féin-ak antolatutako festibalak, auzo katoliko guztitan, eta oso ondo egoten die. Aste osua izeten da, kultur ekintzak, filminak... Eguaztena beti izeten da euskaldunen eguna. Aurten eta iez ezta



Aurten zazpi antzuolar izan dira Irlandako iparraldean.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

abeslaririk jun baiña lehen Anje Duhalde juten zan, hiru urtian edo egon da. Bazkari bat egoten da; *Culturian* da gaelikoa erakusten daben zentro bat. Astekari bat etarutzen dabe eta irrati bat pe badauke. Bazkarixa han izeten da eta egun horretan Euskal Herrixari buruzko bideo bat botatzen da eta gero hemengo zeozer gertatzen da bazkaltzeko. Aurten gisau prestau dogu eta aurreko urtian, babak.

Adiskidetasun horren arrazoirik nagusia, non datza?

Aske ezta bi herri diela da nagusixena. Irlandako zati bat dago aske eta beste sei kondadu Inglaterraren menpe dare. Dama bat izetia bihar dabe, eren hizkuntza eta guzti. Hala ta be, hizkuntzia, gaelikua, nahiko galduta dago; euskeriakin konparatuta askoz okerrago dago, baiña oin umiak eta eskola gaelikoetara eruatzen ditue eta berreskuratzen hasi die. Han kalia ezta gaelikoz entzuten eta "keltak" esaten jakuena, hemengo barnegegixen modukuak, hiru edo lau dare, batzuk Iparraldian eta beste batzuk behian, Galway aldian.

Zuek Ipar Irlandan egoten zarete?

Ipar Irlanda etxakue gustatzen esatia, erok Irlandako Iparraldia esaten dabe. Ipar Irlanda ingelesak asmatutako estatu artifzial bat da, hemen baskongaden moduan edo.

Hango giroa ez da izango hemengoaren modukoa, ezta?

Agostuan oso giro ona egoten da; euskaldun pillia bat egoten da eta bretoiak, katalanak, korsuak, flamenkuak... Herri minorizatu pillia bateko jentia juten da. Harreman haundixa dauke kanpoko jentia.

Aukera izanez gero, hantxe biziko zinateke?



Mikel bere bidailagunekin Belfasteko taberna batean.

Bizitzeko oso gogorra pentsatzen jat. Hillabete batzuk igual bai, baiña bizitzeko... Auzuak eta oso zatituta dare. Protestante bat eta katoliko bat elkarren onduan ezin da bizi, kale batzuk dare batenak eta beste batzuk beste batenak, auzo sektarixuak die.

Egoera hura ikusi eta bizitzea gogorra da?

duan, dana konponduta daguala. Oindikan zalantza haundixak eta eztabaida haundixak dare eren artian. Esperantzia dauke Irlanda dana naziño bat izetekua hemendik gutxira.

Belfastera joan diren gehienek kontatu digutenez, ume asko dago

Bai, batez be katolikuen aldian. Iraultza egiteko modu bat da eurentzat.

■ ■ ■
 “Euskaldunen eta irlandarren artian harreman ona dago, oso jente jatorra da”
 ■ ■ ■

Bai, baiña ezta oin zortzi urte beze-la. Lehen ezin zan kalera urten. Gabian bildurrez, taberna danak zaintzailliekin... Oin lasaittasuna ikusten da, nahiz eta tabernetan oindio kamarak egon. Baiña tinberik eztago, oin zabalik dare.

Bake prozesuari buruz berba egiten dute?

Bai, esperantzia badauke baiña ezta hemen telebistak esaten daben mo-

Pentsauta dauke 2007. urterako ingelesak baiño gehixao izetia eta burrukian zati baten moduan hartzen dabe erak. Umiak egin bihar diela esaten dabe irabazteko. Kalietan ikusten dan ume pillia hemen ezta ikusten eta horrek asko txokatzen dau. Langabezia haundixa dago gaiñera, auzo batzutan %40 langabezia dago. Gazte asko langabezia dago, hemengo aldian asko.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Apalinetarako eta industriarako pinturak •
 • Paper margotuak •
 • Mokatet eta tapizatuak •

Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78
 Erakusketa: Kalebaren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Eginen aldeko mozioa

Egin egunkaria eta Egin irratia itxi ziztutenean, herriko HBk eta ZUTIKek gobernu espainiarraren erabaki hori salatzeko mozioa aurkeztu zuten udaletxean, uztailaren 16an. Mozioa, udal batzarrean bildurik zeuden hamar zinegotziek onartu zuten. Alkatearen aldeko botoaz gain, EAJren lau botu, EAren botu bat, HBren hiru botu eta ZUTIKen beste bat izan ziren aldekoak.

Mozioarekin, operazio polizialean egindako atxiloketak eta bi komunikabideen itxiera salatu nahi izan zuten zinegotziek. Honela, eta mozioan irakurtzen denez, "atxiloketa hauekin eta Egin irratia eta egunkaria itxtearekin gobernu eta epaile espainiarrek, adierazpen eta iritzi askatasuna ixilarazi nahi izan dutelako gure gaitzespena adierazi eta berriz irekitzeko exijitza" eskatzen zen.



Uztailean Antzuolan egindako manifestazioa.

Curavacas eta Espigüetera irteera antolatatu du Arrola mendizale elkarteak. Irteera irailaren 26 eta 27an egingo dute. Afaldu, gosaldu eta lo Palentziako Alto Carrion herriko ostatu batean egingo dute. Mendi irteera honetara joateko irailaren 21 eta 22an eman beharko da izena, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara, Arrolaren egoitzan. Bidaia 6.000 PTA. kostako da bazkide izanez gero. Bazkide ez direnek, berriz, 7.000 PTA. ordaindu beharko dituzte eta ikasle eta langabetuek, berriz, 5.000.

3. adinekoentzat oporrak

INSERSOK hirugarren adinekoentzat oporraldiak antolatatu ditu Kanariar irletara, Portugalera, Galiziarra eta Asturiasera. Interesatuak udaletxeko gizarte zerbitzura jo dezakete irailaren 25a baino lehen. Bestalde, irailaren 23an, Donostiako Aquariumera bidaia egingo dute herriko jubilatuek. Izen-ematea irailaren 20an amaituko da Jubilatuen tabernan eta 2.600 PTA kostako da.

GURE ARTIAN

Non egon zara oporretan eta zer gustatu zaizu gehien?



**Mabel
Rodriguez**

Indian, Katmandun eta Nepalen eta gero zortzi egun Tibe-ten. Tibet gustatu zait gehien, nahiz eta txinatarrek oso gaizki tratatzen dituzten.



**Sergio
Hernando**

Parisen eta Erroman, baina Erroman hobeto pasatu dogu, merkiagua zalako eta giro hobia zeguan gaiñera. Parisen jente dana oporretan zeguan.



**Amaia
Laskurain**

Austrian egon anaiz hogeit egun. Oso polita da. Gaiñera mendixan be ibilli ga; baiña polittena Viena, Salzburgo edo Insbruk pentsau jat.

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxoeko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA

BERGARA

☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

ANTZUOLA

Apaintetak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA

Tf.: 943 72 30 05

Biltegia: 943 78 70 40



TXOMIN

garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA

Tf. 943 78 70 77

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA


HAUEK ERE BAI...




ROSA



PILI




ANA



KARLOS



GAIZKA



AMAIA



AITZIBER




FELIX



JUAN SIMON



FRANKI



ENERITZ



LORENA



MARISA




...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!
izena eman **æekⁿ**

Bergarako AKULU AEK euskaltegia Tf. 943 76 05 18

euskaltegi eta barnetegieta!

MULTIOPTICAS

BERRIRO 98 IKASTOLARA



BILL Mod.

Presta itzazu seme-alabak eskolarako Multiopticasen imajina ditzakezun betaurrekorik gogorrenak erosita



PEGGY Mod.

monturak eta kristalak

8.900 pta.

bakarrik



Nº1 EN SERVICIOS OPTICOS

LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - BERGARA
Tel. 943761575

J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
Tel. 943792995

J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA
Tel. 943889988

“Klasikoen
aukeraketa
iraupen luzeko
28 disko
konpaktutan”



Egunkaria

+550 PTA.

IRAILAREN 12TIK AURRERA,
ASTEAZKEN ETA LARUNBATETAN

- | | | | | | |
|--------------|------------------|-------------------|-------------|----------------|---------------------|
| 1- Vivaldi | 6- Mozart (1) | 11- Beethoven (2) | 16- Liszt | 21- Bizet | 26- Rimski-Korsakov |
| 2- Bach (1) | 7- Haydn (2) | 12- Berlioz | 17- Wagner | 22- Mussorgski | Glinka |
| 3- Haendel | 8- Mozart (2) | 13- Mendelssohn | 18- Verdi | 23- Txaikorski | 27- Mahler |
| 4- Bach (2) | 9- Beethoven (1) | 14- Chopin | 19- Strauss | 24- Dvorak | 28- Ravel |
| 5- Haydn (1) | 10- Schubert | 15- Schumann | 20- Brahms | 25- Grieg | |

Baserriko produktuak aukera onean

San Martin feriaren beste edizio bat zapatuan

Zapatuan Barazki, Fruitu, Lora eta Gazta Lehiaketaren beste edizio bat izango da Bergaran. Deba Garaiko baserriarren lana promozionatzeko asmoz, Kultur Ekintzak San Martineko feria jarri zuen martxan 1970ko hamarkadaren amaieran eta azken urteotan berrindartuta agertu zaigu partaidetza Euskal Herri osora zabaltean.

Udalak Kultur Ekintzaren testigua hartu zuen 1990eko hamarkadaren hasieran eta batzorde batek dauka feriaren antolaketaren ardura. Udaleko ordezkariez gain, Deba Garaiko Nekazaritza Bulegoa, Mendi Nekazaritza Elkarte edota garai batean Kultur Ekintzan ibilitako jendea aritzen da antolaketa lanetan. Normalean ekainean ekiten diote feria antolatzeari eta abuztuaren amaieran ixten da lehiaketan parte hartzeko epea. Azken orduko nobedaderik ez badago behintzat, bihar barazkietan 8 baserriar izango dira lehian, fruituetan lau, loreetan beste horrenbeste eta, azkenik, gazta lehiaketak izango du partaidetzarik handiena, 29 produktorekin. Loreen kasuan, moztutako lorak eta etxeko loreen arteko bereizketa egingo da.

Lehiaketetan parte hartuko duten baserriarrez gain, beste 43 postu jarriko dira biharko ferian, gehienak baserriko produktuak salgai izango dituzte: ezti, baserriko ogia, piparrak, txori-za, odolostea, taloak eta abar luze bat. Lehiaketetako postuak Plazan kokatuko dira eta gainontzekoak Seminarioan. Kultur Ekintzan lanean ibilitako Regino Valleek oraindik ere jarraitzen du feriarren antolaketan laguntzen. Bere hitzetan, "partaidetza aldetik kopuru polita lortu da eta badira urtetik urtera hutsik egiten ez duten baserriarrak ere. Kultur Ekintza desagertu zenean baserriarrek beraiek feriarren jarraipena aldarrikatu zuten, Udalak antolaketa bere gain hartu zuen arte. Gaur egun



feria nahiko sendo dagoela esango nuke eta urtetik urtera hobetzen doa. Iku-si besterik ez dago zer nolako jendetza biltzen den zapatuan postuen inguruan... Lehiaketek ere erantzun ona daukate eta gazten lehiaketak bereziki izen bat izatea lortu du. Baserriarrak oso gustora etortzen dira eta, urtero komentatzen digutenez, asko saltzen dute Bergaran. Ordiziako feria beste maila batean dago baina hemen ere kalitateko produktuak izaten dira. Ferien artean kompetentzia haundia dago; Zumarraga eta Tolosako feriekin koinziditzen du Bergarakoak baina badira hona etortzea nahiago duten baserriarrak".

Salmentak gora

Mallabiakoa jaiotzez, Jesus Osak 27 urte daramatza Bergaran, Angiozarko "Zabarte" baserrian. Ferian urtero izateko ohitura dauka; barazki zein gazta lehiaketan parte hartuko du zapatuan. Jesusek azaldu digunez, "denetik eramanen dut feriarra: lekak, azelgak, porruak, azak, letxugak, patatak... Ogia ere lehengo moduan egiten dugu ohitura zaharrera. Badakizu, edade txarra modernizatzeko... eta ez dugu labe modernorik eta holakorik erabiltzen ogia egiteko. Gazta eta baserriko ogia honen moduko ferietan aurkezten ditu-

gu". Urtean zehar gazta dexente egiten dituela esan digu Osak; "arriba ere ibiltzen da nirekin. Urtariletik ekainera bitartean izaten da gazta egiteko sasoa. Guk 60 bat ardi dauzkagu baserrian eta gazta egiteak ez dauka beste munduko sekreturik; gazta egiterakoan garbitasuna kontutan izan, gazta ondo tratatu, kamaretan tenperatura egokian mantendu eta esnea ona izatea, besterik ez; esnea grasa askokoa baldin bada, askoz hobe". Santurtzin saritu izan dute Jesusen gazta. Bestalde, salmenten aldetik, San Martinetako oso feria ona dela esan digu; "lehengunean Elorrioren izan nintzen eta Bergara saltzeko puntu ona da. Ondo saltzen da hemen; jende asko ibiltzeaz gain, asko erosten du jendeak. Ni neu oso gustora nago Bergaran saltzen dudanarekin. Erosleak zeintzuk diren? Emakumeak batez ere. Gana du ferian gizonetako ibiltzen dira gehienbat eta honelakoetan emakume gehiago ibiltzen da". Aurtengoa uzta ona izan den galdetu diogu Osari; "uztailean eta abuztuan bero handiak izan ditugu eta horrek zelaiei kalte egiten die. Uzta hobeak izan dira baina orokorrean kalitateko produktuak batu dira".

Gazta, lora, fruitu eta barazki lehiaketan parte hartuko duten baserriarren postuak Plazan izango dira eta gainontzekoak Seminarioan jarriko dira

Epaimahai lana

Zapatuko lehiaketetako epaimahaiari Jose Mari Ortuzar Jaurlearitzako Nekazaritza Saileko ordezkaria, Luis Butron Diputazioko Landare Saileko zuzendaria, Gaizka Macho kritikogaztrotomikoa, Emeterio Elkoroberezibar Mendi Nekazaritza Elkarteko kidea eta Jose Mari Borja Deba Garaiko Nekazaritza Bulegoko burua izango dira. Jose Mari Borjaren ustez, "feria oso momentu onean egiten da, produktuen kalitatea ezagutzeko oso garai ona da hau. Aurtengoa uzta ona izan da; fruta-arbolek (sagarrondoek, madariondoek...) asko eman dute eta barazkietan ere antzera; gaur egun teknikari esker base-



Gazta lehiaketak izango du partaidetzarik handiena, 29 produktoreekin. Epaimahaiak lan nekeza izango du irabazlea izendatzeko.

eritarrek ia dena kontrolpean izaten dute eta kalitatea ziurtatzea errezagoa egiten da. Jendearen aldetik oso giro ona izaten da eta partaidetza haunditzea besterik ez dut faltan botatzen. Dena den, opor osteko fetxak ez dira egokiak baserriarrak erakartzeko. Behar bada jende famatua ekartzeko ahalegina egin beharko genuke. Gatikan adibidez bada izen haundiko produktore bat eta horrelako jendea ekarteak ospe handiagoa emango lioke feriarri. Bestela Seminarioa eta Plaza marko oso polita iruditzen zait feriarako. Eta baserriarren presentzia haunditzekotan, Barrenkalea eta Bidekurutzeta aldera

San Martinak 98 San Martinak 98 San Martinak 98

ZAPATUA 12

- 09:30: Barazki, fruitu, lora eta gazta lehiaketa**, San Martin Agirre plazan.
- 11:00: Antzinako abankargazko armekin plater tiraketa**, VIII. San Martin txapelketa, Gorlako kantina inguruan.
- 12:30: Bergarako odolosteak dastatzea**, Bedelkarreko harategiek antolatuta. Bestalde, egunean zehar **txekorra burduntzian** erreko da Seminarioko patioan, Bedelkarreko harakinen laguntzaz eta ardo eta garagardo dastaketa izango da egunean zehar.
- 19:00: Buruhaundi, kiliki eta erraldoien kalejira**, Udaltxistulari Bandak, Kobok dultzaineroak eta Kukuma hankapalu taldeak lagunduta.
- 19:45: Bonba japoniarrak** haurrentzat, San Martin Agirre plazan.
- 20:00: Txekor-jana Seminarioko zutabe patioan** Bedelkarreko harategiek antolatuta. Txartelak harategietan izango dira salgai (1.900 PTA). Xafre eta Zaharra trikitilariak alaituko dute afaria.
- 22:30: Bikoteen dantza sueltoko XIV. txapelketa**, Moises Azpiazuren oroimenez, Udaltxistulariok antolatuta.
- 23:00: La Parranda** taldearekin dantzaldia, San Martin plazan.

DOMEKA 13

- 09:00: XXV. Ageriko pintura lehiaketa** Beart elkarteak antolatuta. Izen-ematea Kultur etxean. Koadroak Kultur Etxean jarriko dira ikusgai.

MARTITZENA 15

- 19:00: Kukubiltxo** antzerki taldeak Kukubel ikuskizuna emango du haurrentzat, San Martin plazan.
- 19:30: "Txondorak. Karobiak. Elurzuloak"** liburuaren aurkezpena, Udaletxeko Pleno Aretoan. Egileak: Argiñe Urkiola eta Amaia Olañeta.
- 19:30: "Iraileako 6"** taldearekin dantzaldia San Martin plazan.
- 22:00: Nagusien danborradaren irteera**, Udaltxistulariok antolatuta. Ibilbidea: Seminarioko patioa, Irizar, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.
- 00:30: "Iraileako 6"** taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

Txekor afariaren hirugarren edizioa zapatuan

Bedelkarreko harakinek hirugarren urtez jarraian antolatuta, txekor afaria izango da zapatu gauean Seminarioan. Behi eroarena gertatu zenean, haragiaren kontsumoaren jeitsiera ikusirik eta behi-haragiaren kalitatea aldarrikatzeko asmoz, harakinek txekor jana antolatzeari ekin zioten eta aurreko urteotako erantzun bikaina ikusita, ekimenari eutsi diote berri ere. Aurten ere Elorrioko Gazeta elkarteok izango dira txekorra prestatuko dutenak. Gazetakoek hamabi bat ordu emango dituzte Seminarioan txekorra burduntzian gertatzen. Ugasarri baseritik ekarritako urtebeteko txekorrak hiltegiaren 254 kiloko pisua eman du eta, antolatzaileen arabera, 300 bat lagun izango dira afarian. Menua honako hau izango da: entsalada, txekorra piparrekin eta, postrerako, Bergarako errellenokak. Afarirako txartelak 1.900 pezetan daude salgai Bedelkarreko harategietan eta zapatuan bertan ere eskuratu ahal izango dira. Afarian eta egunean zehar ere Xafre eta Zaharra trikitilariak arituko dira giroa alaitzen. Afalostean, berriz, La parranda

taldearekin dantzaldia izango da Plazan.

Bestalde, harakinek ere odoloste dastaketa iragarri dute zapatu goizerako. Harakin bakoitzak 10 kilo odoloste jarriko ditu eta hortik aurrera kontsumitzen denarengatik ordaindu egin behar izango da. Jasotzen den dirua Xamatx dantza taldearentzat eta Aritzeta abesbatzarentzat izango da. Era berean, txerri baten zozketa ere egingo da zapatuan. Azken bi urteotan ez da saridun boletoaren jaberik azaldu. Adi, beraz, saritutako zenbakia konprobatzeko orduan... **B**



zabaldu daiteke, Gernikan egiten duten moduan”.

Gazta lehiaketan 29 gazta izango dira aurten. Epaimahaikideek lan zaila izango dute irabazlea izendatzeko orduan. “Kanpoko itxura, barruko zuloak

(fermentazioa eta prentsaua ondo egin diren ikusteko), zaporea, usaina eta azkenengo zaporea baloratzen ditugu, Idiazabalgo Kontseilu Erregulatuak emandako irizpideen arbera. Prozesu nahiko mekanikoa da baina sentsibili-

tate pitin bat ere beharrezkoa da guztien artean onenak aukeratzeko” diosku Jose Mari Borjak. Lehiaketan parte hartzen duten gaztak Mizpirualdeko Erresidentziara bidaltzeko ohitura dago. **B**

ak 98 San Martinak 98 San Martinak 98

EGUAZTENA 16

08:00: **Diana** Udal Txistulari Bandarekin.

08:30: **Sokamuturra** herriko kaleetan zehar.

11:00: **Meza nagusia** San Pedro elizan. Udal korporazioa joango da, Udal Musika Banda eta Udal Txistulari Bandarekin batera.

12:00: **Udal Musika Bandaren kalejira.**

12:30: **Udal Musika Bandaren kontzertua**, San Martin

Agirre plazan.

Egitaraua:

- Dantza eslaviarra. P. Tchaikowsky

- Evolutions (obertura). A. Reed

- Don Gil de Alcalá. Operako fantasia. M. Penella

- San Martin. Euskal irudiak. Miguel Gonzalez Bastida

- Umore-Ona. Martxa. Miguel Angel Gonzalez Bastida

17:00: **Pilota partidu bikainak**, Udal Pilotalekuan.

19:00: **Haurren danborrada Musika Eskolako Bandarekin.**

Ibilbidea: Seminarioko patioa, Irizar, Barrenkalea,

Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza.

20:00: Dantzaldia **Gaubela** taldearekin, San Martin plazan.

22:00: **Suzko erroberak** Agorrosindik.

EGUAKITZA 18

20:15: **Bergarako Orfeoien 75. urteurreneko ospakizunen aurkezpena** eta hasiera, Udaletxeko Pleno Aretoan.

ZAPATUA 19

12:00: **Irrati-kontaktuen lehiaketa**, 24 orduz, domeka eguerdira arte, Surra Irratizaleen elkarteak antolatuta.

16:00: 23 urtez azpikoentzat **XXXIII. San Martin txirindulari lehiaketa.**

17:00: **Nazioarteko eskubaloiturneo**, Labegaraieta kiroldegian. Gasteizko El Pilar, Eskoziako Tryst (Glasgow) eta Iraundi BKE taldeek hartuko dute parte.

19:30: **IX. San Martin Herri krosa**, herriko kaleetan zehar, San Martin plazatik irtenda.

22:30: **Bertso jaialdia**, Jardun elkarteak antolatuta, Novedades aretoan. Parte hartuko duten bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegia, Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Ion Sarasua. Gai jartzailea: Joxerra Gartzia.

San Martin ostean hasiko da Labegaraietako txapelketa

Nesken eta jubenilen talde federatuak aurten

Irailaren 19an, San Martin jaien osteko lehen astebukaeran, hasiko da Labegaraietako Futbito Txapelketako 98-99 denboraldia. Joan zen egue-nean talde guztietako ordezkariak Antolaketa Batzordearekin bildu eta txapelketako nondik norakoak zehaztu ziren.

Guztira 59 talde aurkeztu dira, lau taldeetan banaturik eta 600 lagun inguru arituko dira. Lehen mailan, taldeek bi bider jokatuko dute elkarren kontra. Beste hiru multzoetan, berriz, guztiek elkarren kontra behin jokatuko ondoren, berriz ere eratu dira multzoak sailkapenaren arabera: A, B eta C multzoko 4 lehenengoak, 12 talde guztira, bigarren mailan arituko dira; 5.etik 8.era sailkatzen diren beste hamabi taldeak, berriz, 3. hirugarren mailan eta A multzoko azken hirurak eta B eta C multzoetako azken laurak, 11 talde guztira, laugarren mailan.

Bestalde, Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu talde batzuk ez dituztela jokalaririk guztien nortasun agiriak entregatu eta txapelketa hasi baino lehenago entregatu beharko dituztela. Honako hauek dira: Bildurbarek Opel/Lam, Shaktale, Usoa, Guadalest, Uve Bikoitza, Patatus, Eri Sirimiri eta Zubixaurre punk.

Esan dezagun, azkenik, Jose Pescador "Peska" ardu-



A Ze Flaxa Etxagi, iazko kopako txapelduna.

ratuko dela aurten ere partiduen ordutegiaz eta norbaitek aldaketaren bat egin nahi izan balu, martitzena baino lehen jakinarazi beharko lioke honi. Antokaleta Batzordea martitzen arratsaldero bilduko da Kultur Etxean.

Jubenil eta neska federatuak

Lagunak Elkarrekin aurten ez du nagusien talde federaturik sortuko, baina jubencil mailakoa eta nesken izango dira. Hauek Gipuzkoako beste herrietako taldeen aurka arituko dira. Nagusien taldeak ezin izango du aurtengo denboraldian egon, entrenatzaile gabe gelditu delako. Joan zen urtean hiru izan ziren taldeak utzi zuten entrenatzaileak: Jose Maria Romero, David Lopez de Abetxuko eta Xabier Albusua. David Romero arduratu zen taldeaz, denboraldi amaierarte, atezain eta entrenatzaile lanak egingez. Joan zen denboraldian talde federatu bakarra izan zen, bigarren maila autonomikoko 5. postua lortuz.

Mutilen jubencil taldean, Aitor Zabaleta izango da entrenatzaile eta nesketan, berriz, Mikel Fernandez. Azken bi talde hauetan hamabi jokalaririk inguru jardungo dira aurten. Antolatzaileek interes berezia erakutsi dute nesken taldearen inguruan, joan zen denboraldian izan zuten antolaketa onagaitik. B

TXAPELKETAN ARITUKO DIREN TALDEAK

1. MAILA

A Ze Flaxa Etxagi
Mongatxurak
Pagomendi
Errotagain
Jauja OH Zerezos
Azpeitxi Jatetxea
Bildurbarek Opel/Lam
Ortzi
Manitou
Gozoak
Shaktale

B MULTZOA

Pinturas Bergara
Agiñaspi
Argandolas
Ufala
Buya
Guadalest
Uve Bikoitza
Amozkibar
Moski
Arbe Kirolak
HHH
Patatus

A MULTZOA

FAC
Artusamak
SLP
La Juve
Iru-bide jatetxea
Etengabe
Usoa
Urrutxurtu
Txipiron
Komando Piperrak
Autos Ion

C MULTZOA

Patxaran Team
Bayer
Eri Sirimiri
Matxategi
Agirrebefia
Ixoane
Amilotx
Ezinleike
Igandekoak
Xurruapak
Ari Ari
Zubixaurre punk

Medikuntza zerbitzua hartzeko eskaririk ez

Bergarako Udalak, herritar kirolarien beharrak asetuko dituen medikuntza bulego bat eraikitzeko proiekturako arduradun baten beharrea jarraitzen du.

Bigarren deialdia abuztuan egin zen eta oraindik ez da horretan arituko denik azaldu. Une honetan, udal kirol arduradunek enpresa ezberdinekin hitz egiten jarraitzen dute, baina oraindik ez dira akordio batera iritsi.

Hasiera batean, enpresek Udalak ezarritako prezioa gutxi zela adierazi zuten. Honek guztiak medikuntza zerbitzua atzeratzea dakar, Udalak irailean zabalik izatea espero bazuen ere. Bergara eta Oñatiko udalen artean banatuko dira medikuntza zerbitzuak. Bergaran, esaterako, udal bilte-



Kirolari federatu eta afizionatuek erabili ahal izango dute zerbitzua. ARTXIBOA

giko bulego batean izatea espero da. Zerbitzua, kirol elkarte, federatutako kirolari eta kirol zaletuei begira egingo den ekimena da. Kirolak sortarazten dituen lesioak eta denboraldia hasi baino lehen egin beharreko mediku azterketak egitea erraztuko ditu zerbitzu ho-

nek. Udalak hartuko du bere gain egoitzak suposatzen duen miloi bat inguruko aurrekontua.

Dena dela, hil honetan bertan udal eta enpresen artean adostasun batera heltzeko itxaropena adierazi dute Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradunek. **B**

Hiru bergarar Antzuolako futbol taldean

Bergarako jubenil maila utzi eta Urko Irizar, Andoni Elkoro eta Unai Irazola Antzuolako talde nagusira abiatu dira aurtengo denboraldian. 19 eta 20 urteko bergarar gazteek, Andoni Azkargorta entrenatzailearen esanetan jardungo dute beraz.

Irizarrek erdilari postuan jokatzeko du, Elkorok atzean eta Irazolak atezain lanak egiten ditu. Andoni Elkorok adierazi digunez, "jubenil mailan jokatu ondoren, Bergaran jarraitzeko aukerarik ez genuen. Talde nagusiko entrenatzaileak ez zigun goiko mailan jokatzeko deitu, beraz, kanpoan geratu ginen. Jubenil maila pasatu ondoren ez dago beste aukerarik. Futboleko jokatzeko jarraitu nahi izanez gero, Bergaratik kanpo joan beharra dago edota bestela futbitoan aritu. Maila baxuagoa dago Antzuolan, baina giro ona eta futboleko jokatzeko gogoia dago". Antzuolako taldea mailaz jaitsi egin da aurtengo. Bigarren maila erregionalean arituko da.

Denboraldia datoren irailaren 20an hasiko du taldeak baina dagoeneko badabil hainbat txapelketa jokatzeko, Bergara Hiria txapelketa esaterako. Antzuolako taldean hutsune ugari izan dira aurtengo denboraldiari begira eta horrela izanik, herritik kanpo bilatu behar izan dituzte taldea osatzeko jokalariek. **B**

Saskibaloi-lagunartekoak zapatuan

Begarako saskibaloi taldeek, itxaron egin beharko diote denboraldiaren hasierari. Talde nagusiak eta jubenil mailako mutilek, hilaren 26an lehendabiziko partidua izango badute ere, gainontzekoek, urriaren erdialdean eman go diote hasiera denboraldi berriari. Dena dela, badute aurreprestaketa egiteko aukera.

Begarako saskibaloi arduradunek, lagunarteko hiru partidu antolatuko dituzte astebukera honetan, zapatuan hain zuzen ere. Lehen maila autonomikoko Bolsos Bergara talde nagusia eta jubenilak, Iruñeako Ursulinas taldearen kontra arituko dira. Jubenilak arratsaldeko 16:00etan eta talde nagusia, berriz, 17:45etan.

Kadete mutilek, lehentxeago, eguerdiko hamabietan, Durangoko taldearen aurkako norgehiagoka izango dute. Lagunartekoak denboraldiari begira jokatzeko dira. Arduradunek beharrezkoa ikusi dute partidu hauek antolatzea, jokalariek nola dauden ikusteko eta denboraldiari begira sor daitekeen edozein arazo ekiditeko. **B**



Futbol talde nagusia martxan

Zuzendaritzan aldaketak izan dira, talde teknikoan ez

Mailaz igo ondoren, futbol talde nagusiak preferente mailari aurre egin beharko dio oraingoan. Denboraldia hasi duen futbol saileko talde bakarra da. Gainontzekoak, lagun arteko partidua ari dira jokatzen piskanaka indarrak hartzen joateko asmoz.

Preferente mailakoak, berdindu egin zuen Orioko taldearen aurka estreinuko partiduan, joan zen zapatuan Agorrosinen. Astebukaera honetan, zapatuan, Real Unionen kontra jardun beharko da Irunen. BKEko futbol sailak sei talde izango ditu aurten. Bakoitzaren errepasoa egingo dugu.

Nietoren mutilak martxan

Enrike Nietoren mutilak Preferenten arituko dira berriz ere. Mahoneroak maila berri honetako taldeen kontra jokatzeke irrikitan daude. Aurten aurpegi berri batzuk badaude ere, ia jokalaririk guztiak joan zen denboraldikoak dira.

Talde teknikoak honako hauek osatuko dute: entrenatzailea, Enrike Nieto; bigarren entrenatzailea, Lauri Askargorta; ordezkaririk,



Preferente taldea, joan zen zapatuan Oriokoren aurkako partidua jokatu baino lehen.

Luis Herzog eta Bitxor Gomez eta masajista Irene Unzueta.

Abuztuan, aurrendenboraldian, bi txapelketa jokatu dituzte Nietoren mutilek, Bergarako eta Arrasatekoa. Bergara Hirian, Antzuola eta Aloña Mendiren kontra nagusitu ondoren, txapela etxean gelditzea lortu zuten. Bestalde, Arrasaten ez zuten zorte haundirik izan: Aretxabaletako UDA eta Arrasateren kontra aritu ondoren, hirugarren postua lortu zuten.

Gorka Zelaia, Piti, Aritz Ibarluzea, Eñaut Unamuno, Ekain Manso eta Ektor Lascurainek taldea laga egin dute aurten, baina beste bost jokalaririk berri etorri dira: Ander Berraondo (Aloña), Igor Alberdi, Igor Areitio (eibartarra), Joseba Duran eta David Maestre.

Lehen mailako jubeniletan talde bikaina aurten

Joan zen denboraldian, 2. mailako jubeniletan aritu zirenak lehen mailan aritu-

ko dira aurten, iaz jubenil nagusietan aritu ziren beste jokalaririk batzuekin batera. Bigarren mailan ibili zirenak sekulako denboraldia egin zuten iaz eta Gipuzkoako txapelketa ordez geratu ziren.

1980 eta 1981. urtean jaiotako gazte hauek zeresanik emango dute aurten eta iazko moduan ibiliz gero, emaitza onak lortzeko aukera haundiak dituzte, aurten ere jokalaririk talde onak bildu baita. Datorren urtean talde handian izateko auke-

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

ra izango dute, baina hori lortzeko lan handia egin behar dute gazteek, hilaren 20tik aurrera hasiko den denboraldi berrian.

Jubenil nagusiaren entrenatzailea, joan zen urtean talde nagusian jokatzeko ari zuten Gorka Zelaia onatzen da.

Bigarren maila jubenila Gallastegiren agindupean

1981 eta 1982an jaiotakoek osatzen dute taldea. Joan zen urtean maila berean ibilitakoek eta kadete mailatik igo dutenek osatuko dute bigarren jubenila. Pablo Gallastegi izango da entrenatzaile lanetan. Kadete mailako jokalariek interesgarriak daude talde honetan eta joan zen urtean maila berean ibili ziren jokalariek esperientzia kontutan har-

tuz, emaitza politikak lortu daitezke aurtan.

Kadeteak eta infantilak: harrobiaren oinarria

Fernando Oregi izango da aurtan ere entrenatzailea. Aurtengo kadeteek ohorezko infantil mailan jokatu zuten joan zen denboraldian eta seigarren postuan amaitu zuten. Taldean jokatzeko ari zuten Imanol Cabanillas Realak fitxatu zuen iaz eta beste bi, Julen Berraondo eta Igor Gonzalez, Eibarrek eraman ditu.

Bestalde, infantiletako entrenatzailea, David Lopez de Abetxuko izango da. Eskola kirolean arituko diren artean gehien nabarmentzen direnak osatuko dute infantil maila.

Erronka polita izango du "Txuko" entrenatzaileak,

gaztetxoekin lan egingo baitu eta etorkizunean hauek izango baitira saileko gainontzeko mailak osatuko dituzten jokariak.

Nobedadeak nesken taldean

Hemen ere izan dira aldaketak, aurtan ere entrenatzaile lanetan Bitxor Agirre-

barrenak jarraitzen badu ere. Bigarren entrenatzailea Iñigo Ramirez izango da. Momentuz, 19 jokalariek osatzen dute taldea, eta hauen artean zazpi dira berriak. Bestalde, taldea osatzeko beste hiru jokalariek zain daude. Estreinuko partidua datorren astebukaeran izango da, Bergaran, Zumaiako taldearen kontra. B



Enrike Nieto

Entrenatzailea

G. Nola aurkitu duzu taldea oportunitate bueltan?

E. Taldea zoragarri dago eta konfidantza handia daukat taldearengan. Lasai nago. Denboraldi ona egingo dugulakoan nago. Eskatzen dudak bakarrik, zalegoaren laguntza da. Zaletuak berotasuna ematen dute partiduetan eta horrek asko laguntzen dio jokalariei. Ea aurtengo denboraldian Agorrosinera jende gehiago gerturatu den.

G. Ze aldaketa ekarriko ditu preferente mailak?

E. Gainontzeko taldeen maila handiagoa da baina horrek ez nau arduratzen. Gutxi gora behera mila kilometro inguru bidaiatu behar dugu, urrutirago joan behar dugu. Preferente mailan fitxaketak egiten dira, seriotasun handiagoa dago eta asko indartzen dira taldeak. Hori izango litzateke aldaketa nabarmenena. Dena dela, taldeak moral handia dauka eta helburua mailari eustea izango da.

G. Clementek selekzioa utzi behar luke?

E. Ez. Clemente egiten ari den lana miresgarria da. Orain arte ez dio inork ezer esan. Gauzak piskat okertu direnean, mundu guztia kontra azaldu da eta hori ez da legezkoa. Selektioaren buru jarraituko duela uste dut. B

"Zaletuen laguntza bakarrik eskatzen dut"



1998-99 denboraldirako aurpegi berriak: Igor Alberdi, Igor Areitio (Eibar), David Maestre eta Ander Berraondo. Joseba Duran falta da argazkian.

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Erreformatzeko dagoen etxea salgai Barrenka-lean. 943 76 29 10.

Barrenkalean aparta-mentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. Deitu 943 76 49 74 telefonora.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Pisua salgai Martokon. la amueblatuta. 943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Aranerren-kan. 943 76 01 62.

Errentan emateko

Etxebizitza alokairuan Deustun, Bilbon. 943 76 13 14.

Errentan hartzeko

Urritik aurrera pisua alokatuko genuke. 945 45 52 09 (Vanesa).

Pisua alokatu nahi du- gu. 943 76 21 48 (Felix).

Pisua alokatu nahi dut.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktua
Deiak
Bestelakoak

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai A. Fleming- gen. 943 76 00 84 / 76 35 83.

Bi solairuko txabola salgai, ortuarekin. Prezio interesgarria. Deitu 943 76 07 87 telefonora.

4. LANA

Eskaintzak

Zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarak egin- go nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zain- tzen ditu. 943 76 64 47.

Haurrak zainduko nituz- ke. 943 76 01 84.

Neska batek etxeko la- nak egin edo haurrak zainduko lituzke (arra- tsaldez). 943 76 72 31.

Urjentea. 943 76 72 45 (Carmen).

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 30 57.

Etxe konpartituak

Pisua konpartituko nu- ke. 943 88 24 60 (Mikel).

Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) pi- sua osatzeko. 943 77 13 77.

Bi neska behar dira Gasteizen pisua osatze-

ko. 943 76 47 70.

Donostian (Amaran) bi lagun behar ditugu pi- sua konpartitzeko. 943 79 27 42.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea Torrekuian. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Maste- rrekan. 943 76 27 71.

Garajea salgai Burdiña-

ten. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterrekan salgai. 943 76 24 57.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Garajea salgai Ibarga- rain. 943 15 15 81.

Garajea salgai Bolun. 943 76 51 54.

Garaje bikoitza S. Lo- rentzon. 943 76 58 00.

Garajea salgai San An- tonion. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

Errentan emateko

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Po- ligoanoan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ma- txiategin. 943 76 22 09.



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

MUJIKA
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

ARREGUI, E.M.




ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 943 76 49 00

HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA

Neska eskaintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

Neska euskaldun batek egunean ordu batzuetan lan egingo luke. 943 76 23 41 (Itxaso).

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Espereintzia. 943 76 03 76 (Maite).

Neska batek zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 09 33.

Neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. 943 76 57 55.

Eskaerak

Antzuolan neska bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko (urritik aurrera). 943 78 71 06.

Pertsona behar da ume bat zaintzeko irailetik aurrera. 943 76 08 47.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 943 76 01 21.

Emakume bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 943 76 48 27.

Umeak zaintzeko neska behar da. 943 76 57 81.

Umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska bat behar da. 943 76 31 11.

Neska edo andra euskalduna behar da egun osoan etxean lan egiteko. 943 76 13 23.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. Deitu 943 76 53 88 zenbakira (Rosa).

Frantseseko klaseak ematen ditut. 943 76 39 68.

Ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 17 18 (Jesus).

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak

OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

Enpresaritzako klaseak. 943 76 05 43.

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Mate, fisika eta informatika klaseak ematen dira. 943 76 46 03.

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Suzuki motorra salgai. 943 76 00 90.

Kotxea (SS-V) salgai. 943 76 36 74 (Jabier).

7. ANIMALIAK

Saldu

Cooker ingeles txakurrak. 943 76 72 45.

Bestelakoak

Katuak oparitzen ditut. 943 76 57 67.

8. DENETARIK

Saldu

Mendiko bizikleta, Caillou, 16 neurrikoa. 40.000 PTA. 943 78 70 58.

Pianoa. 943 76 51 54.

Bainurako manpara, 1,55 m. 943 76 64 65.

Razesa errepiderako bizikleta. 58 neurrikoa. 943 76 31 10.

MTB Hook mendiko bizikleta berria salgai. 28.000. 943 76 13 33.


Bizikleta estatikoa salgai. la berria. 10.000 pezeta. 943 76 07 78.

Hozkailua erosiko nuke. 943 76 50 58 (Maritere).

Aspes garbigailua salgai. Egoera onean. 943 76 11 11.

Galdu

Kiroldegian gizonetako erloju bat galdu nuen irailaren 5ean. 943 76 57 50.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INTERNET PROGRAMATZAILEA
Deba Garaia. 11901/8

SALTZAILE-DEKORATZAILEA
Donostialdea. 11684/3

KONTABILITATEKO GESTOREA
Arabako laut.. 12066/2

SISTEMEN ADMINISTRATZAILEA
Bilbo. 11731/2

INDUSTRI INJINERU TEKNIKOA: ELEKTRONIKA EDO TELEKOMUNIKAZIOAK
Arratia-Nerbioi. 11584/3

TORNULARIA
Plentzia-Mungia. 12092/2

KAMIOIEN MEKANIKAKO AJUSTATZAILEA
Ezker alde. 12118/2

CICS COBOL PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 12257/2

DELINEANTEA
Bilbo. 12272/2

INDUSTRI INJINERU TEKNIKOA: MEKANIKA
Arratia-Nerbioi. 11582/3

INDUSTRI EKIPAMENTURAKO MENTENIMENDU ARDURADUNA
Bidasoa Behea. 12135/3

MEKANIKARIA
Gernika. 12061/1

Jan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaltxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

98-99 IKASTURTEA

INGELES FRANTSESA ALEMANA

MATRIKULA ZABALIK

Ikasturtearen hasiera: urriaren 1ean.

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- **UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK (6 URTETIK AURRERA).**
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.



INFORMAZIOA: Bergarako UNED. San Martin plaza z/g (3. pisua) ☎ 943 76 06 87. Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30

Rock kontzertuz josita dator udazkena Jam-en

Cosmic Psychos, Onyas, The young gods, Dm3, Ross, Jesus Lizard, Pulkas...


Musika kontzertuei dagokienez, udazkena bero-bero dator Jam aretoan. Irail, urri eta azarorako hainbat emanaldi ziurtatuta dituzte. Horietako batzuk, Udalaren laguntzaz antolatuko dira.

Hasteko, techno jaia prestatu dute San Martin bezperarako, Oskar Mulero, Pablo, Orlando eta Imanol DJ-ekin. Udalaren laguntzaz, bestalde, bost kontzertu antolatuko dira: hilaren 19an, Cosmic Psychos eta Onyas punk-rock talde australiarrak izango dira; irailaren 20an, berriz, The young gods suizarrak eta LT no; urriaren 3an, Dm 3 australiarrak eta Ross mutziarrak; urriaren 11n, Kramer ipamerikarrak eta Migala madrildarrak eta urriaren 16an, azkenik, Jesus Lizard eta Pulkas. Bestalde, oraindik ziurtatu barik badago ere, abenduan Cat power ekarri nahi dute.

Udalaren laguntza

Pazkuetan Bideberrin rock kontzertuak antolatzeko emandako diru laguntzaz gain, urtean zehar beste hainbatetarako bi milioi eta erdi PTA eman ditu Udalak eta aipatutako musika taldeak Jamera ekartzeko erabiliko dute dirua.

Horretaz gain, Jam aretoan beste hainbat kontzertu ziurtatu dituzte udazkenerako. Honako hauek dira batzuk: irailaren 26an, Anarcasa eta Centinex; urriaren 10ean, Angelic Upstairs; urriaren 17an, Backyard babies eta Hot dog; urriaren 24ean, Su Ta Gar, Mama ladi-lla, Los notas, Koma etilico eta Los de Otilio; urriaren 31n, Blind guardian eta Ice Earth eta azaroaren 14ean, Vargas Blues Band.



Onyas australiarrak, Cosmic Psychos-ekin batera izango dira datorren zapatuan Jamen.

Gaztelupeko Hotsak-en lan berriak

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak zizgilukoak, bestalde, ez dira geldi gertzen direnetakoak. Udazkenean lau disko berri kaleratuko dituzte: Josean Tolosa "Morau"-ren "Kantu galduak" iraupen motzekoa, Bide Ertzean taldearena, Iñaki Urdangarin kantariarena eta Koldo Izagirre eta Joseba Tapiarena.

Ñako Goñi, Joseba Tapia eta Pettiren laguntza izan du "Morau" k disko berrian. Esan dezagun, bestalde, joan zen astean Bergarako Kultur Etxean bideo-klipa grabatzen izan zela Amaia eta Xabier Labaien bergarren aginduetara.

Bestalde, Deabruak Teilatueta taldeko Joxi eta Imanol Ubeda anaiek tal-

de berria sortu dute, Bide Ertzean izenekoa eta, besteak beste, Fran Iturbe kitarrajole bergararren eta Kaki Arkarazoren laguntza izan dute. Diskoa kaleratu izango dute aurki eta zuzeneko emanaldiak prestatzen ari dira. Proiektu berri honetan, pop melodia eta soinua nagusituko dira. Diskoa antzoki txikietan aurkezteko asmoa dute eta Gartzela Zaharrea ere eskaini nahi dute. Aurki izango dugu horren berri.


Gaztelupeko Hotsak zizgiluaren beste proiektuetako bat Joseba Tapia eta Koldo Izagirrek kaleratuko duten diskoa da. Diskoarekin batera, marrazkiak eta Koldo Izagirreren poesiak ere jasoko dira liburuxko batean. 7 Eskale eta Lorelei taldeen diskoak berriz ere argitaratzeko asmoa dute Soraluzekoek. B



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



LASA
Jatetxea



Ainhoa Agirreazaldegi Lizardi bertso txapelketan bigarren

Ainhoa Agirreazaldegi bergarrak bigarren saria (25.000 PTA) eskuratu zuen joan zen zapatuan Zarautzen jokatutako Bertsolari Gazteentzako XXII. Lizardi Sarian. Inigo Manzisidor "Manxtxi" (35.000 PTA eta txapela) zarautzarrak izan zen txapeldun. 15 bertsolari aritu dira lehian eta joan zen zapatuan zortzi onenak izan ziren Zarautzeko Zinema kiroldegian. Maila haundiko bertsoak entzun zituzten bertan bildutakoek.

Ainhoa Agirreazaldegik orain dela hiru urte irabazi zuen Lizardi Saria eta

oraingo honetan bigarren geratu da. Oso pozik geratu da sariarekin eta egindako lanarekin. Behean daukazue Ainhoak zapatuko saioan Viagrari buruz botatako bertsoa:

*Leben Viagra ta orain beste
pastillaren bat da irten,
alperrik daude aurrerakuntzan
lanean hainbeste kirten.
Sexuak eta planak badakit
ze antzekotasun duten,
berau barrutik irten ezean
ez da egoki egiten.*

B

Kultur Errota: herrietako euskara elkarteek kultura eskaintza

Herrietako euskara elkarte eta komunikabideak biltzen dituen *Topaguneak* Kultur Errota izeneko ibilbidea abian jartzeko asmoa dauka udazkenean aurrera. Kultur sare honek tokian tokiko kultur gile amateurrei edo hasten ari direnei zein profesionali euskarazko zirkuitu bat eskainiko die.

Kultur Errotan proposamen xumeei emango zaie lehentasuna eta formato txikiagoak proposamenak izango dira eskainiko direnak. Ikasturte honetarako honako hauek aukeratu dira: Anje Duhalde, Ruper Ordorika, Amaia Zubiria, Mikel Urdangarin, Andoni Egaña eta Jon Sarasua, Tapia eta Leturia, Txan magoa eta Porrotx eta Lumaren musika.

Emanaldiak noiz eta non izango diren zehaztu barik dago oraindik, baina hasierako asmoa aurtengo udazkenean egitasmoa martxan jartzea da. Bergaran Jardun elkarteak izango du emanaldiak antolatzearen ardura. B



Tokian tokiko artistei ere eskainiko zaie aukerarik.

■ salduenak / uztaila-abuztua

LIBURUAK

Euskaraz

1. NIK ERE GERMINAL! EGIN GURA...
Koldo Izagirre. Susa
2. ERROLANEN HARRIA
Patxi Zabaleta. Txalaparta
3. TENTAIZIOAK
Jasone Osoro. Elkar
4. ORAINGO GAZTE EROAK
Joxe Azurmendi. Luma
5. PLASTIKOZKO LOREAK...
Xabier Montoia. Susa

Erdaraz

1. VAGABUNDO EN AFRICA
Javier Reverte. El País Aguilar
 2. EL LIBRO NEGRO DEL EUSKERA
Joan Mari Torrealdai. Ttartalo
 3. LA BOTICA DE LA ABUELA
Telebistako saioari buruzkoa. Integral
 4. LA NAVARRA MARÍTIMA
Tomas Urzainqui. Pamiela
 5. LAS CENIZAS DE ANGELA
Frank McCourt. Maeva
- Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba eta Zangitu*

DISKOAK

1. CLANDESTINO
Manu Chao
2. ARENA EN LOS BOLSILLOS
Manolo García
3. IBIZA MIX
Hainbat
4. GLORIA
Gloria Estefan
5. MAS BIRRAS MIX 98
Hainbat
6. THE CROSSING
Undrop
7. THE BEST OF ETERNAL
Eternal

Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko

ETXEPAERE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

MAHER
Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 75

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Erdipurdiko. 2. Amaierak. Bat. 3. Janaririk eta edaririk ez hartzea. Aluminioa. 4. Barre. Lasai. 5. Tresna. Istua. 6. Non atzizkia. Siriako eta Libanoko herri bateko kidea. Bokala. 7. Abere mota. Janari ongailu. 8. Iodoa. Gipuzkoako ibaia. Emakume izena. 9. Hosto. Hitz grekoa. Potasioa. 10. Alogerak.

Goitik behera

1. Nabigatzearen ondorioa. 2. Aran mota. Irlaren erdian. 3. Haundi. Emakume izena. 4. Guztiz nekaturik, akiturik. 5. Naizen hau. Eskas. Lehenengoa. 6. Fruitu mota. Iranioa. Jardun. 7. Hektarea. Emakume zahar. Zakur. 8. Euskal eskola. Bokala. 9. Potasioa. Zelai. Peruko biztanlea. 10. Interjekzioa. Trebea, abila. Kontsonantea.

Soluzioa

10. Oii laiaa. K. 9. K. Lau. Inka. A. Aliso. Or. 8. Ikastola. U. 3. Lami. Koru. 4. Abaildurk. 5. 1. Nabigazioa. 2. Okarara. RL. Goitik behera. Orri. Ro. K. 10. Alokairuak. Zakur. Olio. 8. I. Oria. Ana. 9. Gailu. Ttua. 6. An. Druso. I. 7. 3. Berua. Al. 4. Iri. Nasai. 5. 1. Noharhika. 2. Akaberek. I. Ezker eskuma.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da Berpizkune garaiko ermita honen izena eta nork eman zuen bertan bere lehendabiziko meza 1551. urtean, sarreran irakur dezakegunaren arabera ?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zumelaga** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Begoña Beitia**rentzat izan da: Erreki erretegiari bi lagunendako afaria. Zorionak Begoñari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Mizpildi kalea/Jauregi etxea** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-B.**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

Gazte denboran Gipuzkoako igerilaririk onenetakoa izan zen eta oraindik ere uretik gertu jarraitzen du; Arrasateko Musakolako Kiroldegian igeriketa klaseak ematen ditu eta udan sokorrista lanetan aritzen da.

Aintzane Arizmendi

Zenbat urterekin ikasi zenuen igeri egiten?

8-9 urterekin; Jesus Jauregik erakutsi zidan.

Zaila da igeri egiten erakustea?

Ez, umeez berehala ikasten dute.

Sokorrista izateko zein kualidade behar da?

Tituloaz aparte, lan hori gustatzea.

Udan askoz ere lan gehiago izango duzue...

Klaseak ez dira izaten baina jende gehiago dator bai igerilekuetara.

Zenbat kilometro igerian egunero?

Batere ez; nahiago dut footinga eta pesak egitea.

Igerian egiteko ordurik onena?

Eguerdia, jende gutxiago dabilelako.

Igeriketa estilo bat?

Crawl.

Itsasoan ala igerilekuan nahiago?

Igerilekuan.

Bergarako ala Arrasateko igerilekuak?

Arrasatekoak, olaturik sortzen ez delako.

Kanpoko ala barruko igerilekuak?

Kanpokoak.

Hondartza bat?

Saturraran.

Bainujantzia ala bikiniak?

Igeri egiteko, bainujantzia; eguzkitarako, bikiniak.

Dietarik egiten duzu?

Ez.

Sukaldari ona zara?

Sukalderako ezereza naiz.

Janari bat?

Babagorriak.

Edari bat?

Garagardoa.

Hobby bat?

Irakurketa.

Irakurritako azken liburua?

"El clan del oso cavernario".

Filme bat?

Bi urtetan nago zinera joateke...

Jantzi bat?

Praka bakerokak.

Kantari bat?

Benito Lertxundi.

Alejandro Sanzen kontzertuan izan zinen?

Ez.

Zure bertute eta defektu bat?

Lagunen lagun ona izatea eta defektua agintzailegia naizela.

Mania bat?

Puntualitatea eta ordena.

San Martinetako gauzarik onena?

Urteak ez naizela egon...

Danborradan parte hartu duzu sekula?

Bai, behin.



GORKA ELORZA



Oleoak eta plumilak
ERAKUSKETA

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

A. Fleming 7 BERGARA
☎ 943 76 53 15

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**FRANTSES
IRAKASKUNTZA**

98-99
ikasturtea

Izena emateko epea:
urriaren 2ra arte.

Informazio gehiago:

Mizpildi, 3 1. ezkerre. BERGARA.

Tf. 943 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00





Antzuolako dantza taldea

Antzuolako dantza taldeko neskek ditugu aste honetako argazki zaharrearantz agertzen direnak. Erretratua 1955. urtekoa da eta bertan agertzen den zaharrenek 14 bat urte zituen argazkia atera zenean. Orduan ez zen gaur egun beste dantzari ibiltzen, baina herriko jaietan eta aritzen ziren. Argazkian agertzen ez badira ere, dantzan erakusten Purita Zabalo eta Karmele San Sebastian, gaur egun ere ibiltzen dena, aritzen ziren. Hauek dira dantzariak:

Goian: Mari Karmen Urriategi, Maria Luisa Jauregi, Anparito Arregi eta Mari Lourdes Lete.

Behean: Isabel Zabalo, Maria Elena Estenaga, Arantza Garmendia, Maria Arantzazu Arbulu, Eusebita Zubikarai, Ana Mari Garitano, Pilar Garmendia, Mari Angeles Igarza, Enkarnita Azkarate, Milagritos Lete, Begoña Garitano.

Aurre-aurrean: Maria Dolores Mauleon.

Argazkia: Anparito Arregi

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

ORTO + LAGUN
ORTO P E D I A

Maite ezazu zeure burua.
Zure osasuna zaintzeko gaudela!
Zatoz guregana!

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK




*Estilo guztietako zeramikak
era guztietako erreformetarako*

San Lorenzo Industri Poligonoa,
Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR 

Sukaldeko altzariak

Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI ZURE
KOLTXOI ZAHARRA...



...ETA 10.000 PTA
ARTEKO BEHERAPENA
izango duzu zure Atsedeen
Sistema Berrian

FLEX



Loa kenduko ez
dizuten prezioak.
Zatoz eta galdetu!

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**



*a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE*